


2007ko otsailaren 15a • XXVII. urtea
www.ttipi.net



Kazeta proiektua Baztango eskoletan

03

Baztango herrietako eskolen ekarpena bilduz Kazeta proiektua izeneko liburua eta CDa argitaratu dituzte Nora Salbotx eta Xabier Ballarena irakasleek.



Iker Taintak debuta egin du Lesakan

28

Aurrelari lesakarrak sorterrian egin du debuta otsailaren 10ean, Garferen eskutik. Urte honetan, enpresan dituen beteranoekin ikasteko helburua du.

MENDIALDEKO GARAPENA

Cederna-Garalurrek 15 urte bete ditu

04





ORDOKI altzariak

Larunbat goiz eta arratsaldez irekia

ERAKUSKETA: Bittiria 26

SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 948 63 77 80 • LESAKA

SANTESTEBAN tailerrak

ERA GUZTIETAKO ERREMOLKEAK:
ehizarako, abereendako...

ZURE NEURRIRA EGINDAKO ERREMOLKEAK

Erakusketa Doneztebeko Gasolindegia-aren ondoan



Leitzako bidea
DONEZTEBE
Tfnoa: 948 450 282

DATUAK...

- **Baztango herrietako eskola guzien ekarpena bilduz Kazeta proiektua izeneko liburua eta CDa argitaratu dituzte Nora Salbotx eta Xabier Ballarenak, Amaiur eta Oronoz-Mugairiko eskolako irakasleek.**
- **Egitasmoa 2006ko Durangoko azokan kaleratu zuten Sortzen Ikasbatuaz-ekin, eta ilbeltzaren 31n aurkeztu Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean.**
- **Kazeta proiektua liburu-denda handietan banatuko dute. Halere, ikastetxeetatik eurengana jo dute zuzenean.**



Nora SALBOTX eta Xabier BALLARENA *Kazeta proiektuaren egileak* ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

ELKARRIZKETA

«Hezkuntza munduko askorentzat tresna baliagarria izan daitekeela uste dugu»

Gurutze PIKABEA

Zer da Kazeta proiektua?

Teknologia berriak lan tresnatzat artzen dituen proiektu zabala da, haur hezkuntzatik hasi eta lehen hezkuntzako maila guztietan aplikatua izan den esperientzia pedagogiko interesgarria. Proiektuak bere hastapenetik izan dituen zutabe teoriko eta filosofikoak ageri dira bertan. Hortaz harago, bere aplikazioari dagozkion zehaztasun guztiak ere biltzen dira.

Nola aurkeztu duzue egitasmoa?

Liburua eta CDa biltzen ditu Kazeta proiektuak. Baztango herrietako eskoletako ikasleek sortutako ekoizpen guztiak liburuari atxikitutako CD batean bilduta heldu zaizkigu. Honela, irakurleak zertanz hitz egiten ari garen era zuzen eta praktikoa jakinen du momentu oro: liburuan, teorizazioa eta plangintzak, CDan, horren ondorio diren ikasleen lanak.

Nolatan sortu zen proiektua aitzinera eramateko beharra?

Proiektua orain zortzi urte inguru jarri genuen abian. Internet eta teknologiko berrien inguruko kezka hori agertu zelako, ordenagailu eta sarearekin

«Proiektua orain zortzi urte jarri genuen abian, teknologia berrien inguruko kezka hori agertu zelako»

zer egin ez zekiten eskoletan. **Zer izan zen emandako lehen pausoa?**

E-posta bidezko barku-gerra jokoa jarri genuen abian oronoztar haurrek eta maisuek. Orduan, eta intuizioak hausnarketa sakonari aurre hartuta, Kazeta proiektuaren lehen hazia landatu genuela erran daiteke. Prentsa titularrek saltzen ziguten ikuspegi teknokratikoetatik urrun, Baztango herrietako eskoletako ikasle zein irakasleok, baliabide teknologikoen inguruko ikuspegi gizatiar bat oinarri harturik, era ludiko eta funtzionalean informazioa eta komunikazioaren beharko luketen teknologia bereganatzeko eginahala abian paratu genuen. Hurrengo ikasturtean, ziberipua otzori zen, eta ondokoan Kazeta proiektuaren lehen pausua. Kazeta I egitasmoan elkarrizketak, erreportajeak, zorion agurrak, formakunt-

za, ogiaren errezeta... etorri ziren. Gero, Kazeta II Euskal Herriko Entziklopedia, postre errezetak... Eta hara, Bartzelonako Rosa Sensat pedagogia sariketan finalistak izan ginen.

Nolakoak izan ziren hastapenak?

Borondatea bazegoen eta erronka berrin bati aurre egiteko kementsu geunden. Eta lan guzti horien truke, dirulaguntzatxoa jaso genuen, argazki kamera digital disketeduna erosteko adina, eta punto. Zorioneko Kodak-a. Hainbertze lagun berarekin ametsetan... Tira, aitzinerat segitzeak merezi zuen.

Zer lortu nahi da Kazeta proiektuarekin?

Hasierako kezka hura gainditu dugu Baztango eskoletan, baina irakasle, guraso, guraso zein hezkuntza zientzien eremuan diharduen kide askorentzako lan tresna baliagarria izan daitekeela uste dugu. Proiektuak metodo logi batean oinarrituz, aldiro bilatu izan diren helburuak, landu nahi izan diren edukiak, behar izan diren baliabide funtzional zein materialak, egin diren balorazioak, eta abar aurkitu daitezke.



ARGAZKIA: EDURNE ZUBIETA

Elena Irigoien, Izaskun Abril eta Arantxa Arregi, Cederna-Garalurrek eskualdean dituen garapen agenteak.

NAFARROAKO MENDIALDEKO LURRALDE LANKIDETZA

Cederna-Garalurrek 15 urte bete ditu toki-garapena indartzen

Nafarroako Mendialdean, Cederna-Garalur elkarte bartz helburu zehatzekin ari da lanean, Nafarroako Mendialdea deritzon lurralde garapena erdiesteko. Sakanatik hasi eta Orba eskualderaino, Goñi bailaratik Bidasoaraino. Helburuak hauexek: kalitatezko lanpostuak sortzea, egitasmo berritzaileak garatzea Nafarroako mendialdearen garapena bultzatzeko, teknologia berriak hurbiltzea eta lurralde osoan komunikazioa hobetzea. Egitasmo horiek lortzearren lan egitea izan da Cederna-Garalurren helburu nagusia 15 urte hauetan. Helburu hauek betetzen joateak aunitz ikusteko du urte hauetan elkarte barruko bazkideen elkarlanarekin. Gure eskualdeari dagokionez, 15 urte hauen balorazio bat egin digute Izaskun Abril, Elena Irigoien eta Arantxa Arregik, Baztan-Urdazubi-Zugarramurdi, Leitzaran-Larraun-Ultzama eta Bortzirriak-Malerreka-Bertizaranako garapen agenteek, hurrenez hurren.

Goizalde URDANPILLETA

Cederna-Garalur irabazi asmorik gabeko erakundea da eta 1991.ean eratu zen garapen endogenoa bulkatzeko, herrien arteko elkarlanen bidez. 1.900 kilometro koadroko eremuan lan egiten du. Nafarroako iparraldearen zati bat hartuz, eta 80.000 herritarrengana ailegatuz. Zehazki, Sakana, Leitzaran, Larraun, Ultzama, Bortzirriak, Malerreka, Bertizarana, Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi, Auritz, Orreaga, Luzaide, Aezkoa, Erroibar, Esteribar, Erronkari, Zaraitzu, Nabaskoize, Agoitz, Irunberri, Zangoza, Orba eta Olloko eskualdean lan egiten du. Batetik bertzera hagituz diferenteak diren herriak dira. Izaskun Abrilen hitzetan, «garapen agente bakoitzak gure zonaldera egokitu behar izaten dugu, nire kasuan ez

Arantxa ARREGI *Cederna-Garalur erakundeko garapen agentea*



ARGAZKIA: EDURNE ZUBIETA

Zer da Cederna-Garalur eta nolatan sortu zen?

Elkartea 1991an sortu zen, eta hasiera hartan diru-laguntzak kudeatzeko erakunde bat behar zelako eratu zen. Bai Europakoak eta bai Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak eskualdera ekartzea izan zen hasierako helburua, toki-garapena bultzatzeko. Jendeari zerbitzu publiko bat dela ere sentiarazi nahi izan diogu.

Nolako hasiera izan zen?

Kontuan hartu behar da Cederna-Garalurrek Nafarroako Mendialdea hartzen duela, kilometro aunitzez ari gara, eta leku batetik bertzera hargitz desberdinak direnak.

Udalez-udal joan, gauzak azaldu, nolako zerbitzua martxan paratu nahi genuen azaltzea... Guztia lan handia izan zen, baliabide gutti genituen eskura. Jendeak diru-laguntzak emateko baino ez geundela ulertzen zuen hasieran, eta bertzerik gabe, proiekturik gabe guregana jotzen zuen. Gaur egun ez da diru-laguntzen bila bakarrik etortzen jendea, bertzelako laguntza ere bai, lan bila, proiektuak garatzeko informazio bila... Zerbitzua hurbiltzea izan zen gehien kostatu zena.

Lehen pausoak eman ondotik, 15 urteotako garapena nola izan da?

Arlo guztietan hasieran ikusten genituen hutsuneak betetzen joan gara. Turismoan, industrian, bertze zerbitzuetan... Enplegua sortu dugu, formakuntza aldetik ere aitzinera egin dugu eta kalitate aldetik ere hobetu dugu. Kostata baina poliki-poliki lortu ditugu hasierako helburuak.

15.urteurrena ospatzeko zer egingen da?

Dagoeneko lehen pausoa egin dugu, alegia, nola izanen den promozioa adierazi. Otsailean kongresu ttiki bat egingen dugu Agoitzen, zonaldeko esperientzia azalduz. Aurten hauteskunde urtea izaki, legegintzaldi berriko elkartearen funtzionamendua azalduko diegu. Batzar bat ere egingen dugu, eta akitzeko, kultur ondarea berreskuratzeagatik lehiaketa

«Zerbitzua jendearengana hurbiltzea izan da gehien kostatu dena»

delako gauza bera Baztan bezalako udalerrri batean aritzea edo Zugarramurdi eta Urdazubi bezalako udal ttiki-ekin aritzea». Elena Irigoienek ere aldea nabaritu du. Leitzaldea, Larraun eta Ultzaman ibiltzen da bera: «Herri ttiki asko, eta ondorioz, aniztasun handia. Batzuk industriatik bizi dira, eta besteak nekazaritza turismorako saltoa egiten ari dira».

Gaur egun 150 bazkide ditu Cedernak: udalak, enpresari erakundeak, langileen sindikatuak, nekazal erakundeak, landa turismo, kirol eta kultur entitateak eta fundazioak. Gisa berean, egitasmo eta ekinbideak sostegatzeko dituzten hainbat entitate laguntzaile daude. Zaila da 15 urteotan egindakoa biltzea baina gaur-gaurkoz hargitz ezagun dira zonaldean. Bortzirietan, erraterako, «jende aunitz» etortzen dela azaldu digu Arregik.

Batzuk egitasmo argiekin hurbiltzen dira Cedernara, proiektu bat garatzeko. Bertze batzuk, ideia bat buruan, eta hura garatzeko laguntza bila. Lan orientazio zerbitzua ere eskaintzen du, formakuntza hartu eta lan munduan aukera izateko bideratua. Abrilen arabera, «zonaldeko beharrak Cedernan islatzen dira, eta bertako teknikariok Nafarroako Gobernuarekin eta bertze erakundeekin elkarlanean proiektu horiei erantzuna ematen saiatzen gara. Zubilana azken batean».

DIRU-LAGUNTZEN INFORMAZIO ZEHATZA ASTERO

Lankidetza hitzarmena izenpetu dute Ttipi-Ttapa Fundazioak eta Cederna-Garalur elkarteak

Ttipi-Ttapa Fundazioak eta Cederna-Garalur agentziak sinatu berri duten lankidetza hitzarmenari esker, herritarren interesekoak izaten ahal diren subentzio eta laguntzen informazio zehatza eskainiko da aurrerantzean Ttipi-Ttapa Fundazioak kudeatzen dituen hiru hedabideetan: **www.ttipi.net egunkari digitalean, Ttipi-Ttapa aldizkarian eta Ttipi-Ttapa telebistan.**

Lankidetza hitzarmenean adostutakoaren arabera, Cederna-Garalur elkarteak eta Europe Direct zentroak herritarrendako interesgarria den informazioa bidaliko dio astero Ttipi-Ttapari. Zehazki, informazio horien artean honako hauek egonen dira:

- Indarrean dauden laguntza eta subentzioei buruzko informazioa.
- Indarrean dauden europar programei buruzkoa.
- Entitateak eta erakundeak bilatzeko informazioa, europar proiektuetan bazkide izateko.

- Nafarroako mendialdean garatuko diren eta Europako beste eskualdeetan ezagutu nahi dituzten proiektu, ekintza eta/edo jarduerak eskaerak.
 - Europako Batzordeak eta Europar Batasuneko beste erakundeek bultzatzen dituzten deialdiak, jarduerak eta ekintzak.
 - Europar Batasunari buruzko berriak.
 - Cederna-Garalur elkarteak Europe Direct zentroak antolatzen eta kudeatzen dituen ekintzak eta jarduerak.
- Orain arte aipatutakoaz gainera, urtean zehar gai monografikoen inguruan 4 erreportaje ere argitaratuko dira Ttipi-Ttapa aldizkarian. Izan ere, Cederna-Garalur garapen agentziak antezman duenez, erabili ohi dituzten komunikazio bideekin «ez dira herritarrengana, oro har, iristen, eta oso baliagarria den informazioa galdu egiten da». Hutsune hori betetzera dator lankidetza hitzarmen hau, «Ttipi-Ttaparen hedapenak agerian uzten duelako informazioa helarazteko duen gaitasuna».

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12

E-31760 ETXALAR (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 54 58

Faxa: (+34) 948 63 54 57

www.ttipi.net

info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apeztexea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Gurutze Pikabea.

Berriemaileak: Esteban Arotzena,

Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Jo-

seba Urkiola, Arkaitz Mindegia, Franck

Dolosor, Margari Etxenike, Koro Ira-

zoki, Juan Carlos Mortalena, Aitor Ollo

eta Fanny Bonnemaison, Nerea Alt-

zuri, Oskar Txoperena, Joseba Ola-

garai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arot-

zena, Amaia Odriozola, Ainhoa Ira-

zoki, Maite Oteiza, Rakel Amigo, Irat-

xe Kontsumitzaileen Elkarteak...

Imprimategia: Gertu.

Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leit-

za, Goizueta, Arano, Areso, Baztan,

Urdazubi, Sara eta Senpereko uda-

lak, Zugarramurdiko Akelarre elkar-

tea, Bortzirietako Euskara Man-

komunitatea, Malerrekako Zerbitzu

Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	32 e
Espainia	32 e
Sara (edantegia-okindegia)	40 e
Ipar Euskal Herria	52 e
Europa	52 e
Amerika	110 e
Baztan, Urdazubi, Malerrekak eta Leitza	26 e



**Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du**



**Aldizkari honek Eusko
Jaurilaritzako Kultura Sallaren
laguntza jaso du**

● IRAKURLEAK MINTZO ●

Gazteria aurrera beti!!

Espainiako Auzitegi Gorenak urtarrilaren 19an kaleratutako sententzia aditu eta idatzi hau egitea erabaki genuen. Espainiako tribunal horrek, «terroristatzat» jo du Euskal Herriko gazte mugimendua.

Gazte mugimenduko partaide izandakoak guztiak. Guk, Euskal Herriaren bertze milaka eta milaka gazte bezala, ederki ezagutzen dugu gure herriko gazte mugimendua. Azken urteotan, hainbat pasarte bizitu izan ditugu, guztiak aberasgarriak direnak guretzako: Gazte egunen antolakuntza lanean, intsumisioaren aldeko borrokan, txozna batzordeetan, feminismoaren alde, gazte eskolatan parte hartuz, gazteria gogor zigortzen duten neurri guztien aurka; prekaritatea borrokatuz, kontsumismoari lotutako aisialdiaren aurka, etxebizitza duin baten alde, okupazioa bultzatuz, errepresioaren aurka, drogen inguruko eztabaidak garatzen, esplotazioaren aurka...

Gazte mugimenduen aurkako jazarpenak bere hastapenetik gaur arteraino ez du etenik izan; atxiloketak, kriminalizazio kanpainak, muntaia polizialak, komunikabideen jo puntu... Hala eta guztiz ere, eraso guztien gainetik, bertzelako mundu baten alde eta gure herriaren eskubideen alde lanean aritzeko konpromisoari eutsi diogu beti. Ez ditugu behin ere zapaltzen gaituzten Es-

tatuena legeak aintzat hartu. Jakitun izan garelako beti, gure herriaren etorkizunarekin bukatzea zutela helburu lege horiek. Gazteria indarra eta herriaren etorkizuna izan baita beti.

Begibistakoa da, gure herriak azken urte hauetan pauso garrantzitsuak eman dituela askapen prozesuan. Momentu hagitz garrantzitsu baten aurrean gaude egun. Euskal Herria eszenatoki demokratiko baten ateak ireki nahian dabil. Jendartearen gehiengoak igarobide hori egiteko prest azaltzen da, hori adierazteko aukera duen bakoitzean. Horren aurrean, behin eta berriz ukazioa, errepresioa eta salbuespeneko neurriak erabiltzen ari dira. Badakitelako, herriaren eta batez ere gazteriarren indarra jipoituta, beraien helburuak errezago lortuko dituztela.

Pentsatzen dugu, diotena diotela gazteriarri berean jarraitu behar duela: Euskal Herriaren defentsan eta eraikuntzan. Orain arte bezala, herri mugimenduan txertatuta eta modu guztietako oportunitate aberasgarri horiek eginez. Azpian idatzi hau izenpetzen dugunok babesa helarazi nahi dizuegu egun Euskal Herriko gazte mugimenduko partaide zarenen guztioi, animo, borroka baita bide bakarra! Jo Ta Ke Irabazi arte !!!

Lesakako gazte mugimenduko kide ohiak:
Amagoia Susperregi,
Xabier Terreros, Zaine
Rekondo, Iban Maia,
Izaskun Etxepeteleku,

Mikel San Sebastian,
Ainhoa Terreros,
Imanol Lopez,
Izaskun Rodriguez,
Eneko Fernandez,
Estitxu Arozena,
Igor Altzugarai, Ekaitz
Landa, Patti Martinez,
Aritz Kabelle, Mattin
Sarasola, Xabier Sil-
beira, Igor Portu.

Gizarte Zerbitzuak eta laneko arriskuak

Azken bolada honetan asko hitz egiten da laneko istripuei buruz, eta gehienetan lantokietan, edo tailerretan gertatzen diren istripuak aipatzen dira. Badira ordea, beste lan batzuk zenbait berezitasunekin, eta beraz, arrisku berezi batzuekin. Talde honetan aurkitu dezakegu Gizarte Zerbitzuetan lan egiten dugunon sektorea.

Duela gutxi azaldu zen prentsan, Gastei-zen, gizarte langileekin gertatutakoa; presioak, mehatxuak, ziurtasun falta, eta abar. Lan honetan gizarteko sektore marginatuenekin, behar gehien dutenekin, arazo larriak eta egoera gogorrenetan daudenekin topatzen gara. Hauen beharrei aurre egiteko goiko entitate-tik eskaintzen diren baliabideak banatu behar dira. Eskaintzen dena eta eskatzen denaren arteko tirabira horren erdian gaude, askotan babes faltan eta presio handiarekin.

Horrez gain badaude beste arrisku batzuk, batez ere etxez-etxe

zerbitzuan ematen direnak. Lan fisikoa eta psikikoa ere bada, gogorra, laguntzea beti ez baita erraza; gorputzaren nekea kargak ibiltzeagatik, buruko nekea egoera larriak bizitzen direlako (heriotza, gaitasunak, bakardadea, ezintasuna eta menpekotasunak...).

Honi gehitu behar zaio denbora aldetik mugatuak gaudela, ordu-tegi estuak, batetik bestera joan beharrak, kotxea hartu beharra gehienetan... eta ondorioz honen dakarren estresa.

Hain zuzen, kotxearena da nire ustez arriskurik larriena, baina gutxien kontatzen duguna. Negua dakorkigu, elurra, izotza, euria, eta hau dena gu ibiltzen garen bideetan, errepidean zein baserrietako pistetan. Behin baino gehiagotan gertatu izan zaigu kotxea irristatu zaigula, kunetara joan garelara, ezin pasatuz gertatu garelara... Nozbait istripuren bat izan da, baina langileari ezer larririk gertatu gabe. Eta zerbitzu larria gertatu izan balitzaio? Maldan behera joan eta bertan gelditzen bada? Edo bere bizi guztirako elbarrituta gelditu? Hainbestearaino joan gabe ere suertatzen ahal da kotxea «bakarrik» kaltetzea, eta orduan guk hartu behar dugu gure gain konponketaren ordaina?

Kontuan hartu behar da gure kotxeekin lan egiten dugula. Egia da kilometrajea ordaintzen zaigula baina ez dut uste honek babesten gaituenik honelako kasuetan, gainera gaur egun erregaiek daukaten prezioa ikusi eta, murrizta

• IRAKURLEAK MINTZO •

geratzen da. Hori kontuan hartu gabe geure autoei eragiten diegun desgasatea, edo gure bikoteakidearean autoari, edo gure gurasoen autoari, edo lagunarenari, gurea matxuratuta dagoenean. Arazo hau beharbada hirietan ez da ematen, baina mendialdean eta herri txikienetan batez ere, sakabanaketaren ondorioz, baserrietan adibidez, larría eta gogorra egiten da. Horri gaineratu behar zaio bakoitzaren lan egoera, edo lan prekaritatea; aldi baterako lan kontratuak, ordezkapenak, lanaldi ez osoak eta abar. Pentsa, aste bateko ordezkapena egiten ari den batek istripu bat izaten duela, nahiz eta minik ez hartu, kotxerik gabe gelditzen dela, nor arduratu tuko da?

Zer egin orduan? Lehenengo, arrisku hauek jabetu, egunero bizitzen ditugula ikusi, tokian tokiko berezitasunekin. Honen aurrean prebentzia landu (lanaren antolakuntza, baliabideetan...) babesak bilatu zerbait

gertatzen denerako, aseguruak, bai kalte pertsonalendako bai kotxearendako...

Lana berez gogorra da, ez dezagun oraindik gogorrago egin. Gutxienez onartu beharko lirateke guk, langileok, ditugun eskubide batzuk, hau da behar den bezala babestua egotea, eta ez gure sakelekin edo gure biziarekin ordaintzea. Badirudi Gizarte Zerbitzuen sektore honetaz inor ez dela gogoratzen lan arriskuei buruz solasterakoan, baina hor daude eta neurriak hartu behar dira.

Hausnarketarako bali dezala, guretzat sektore honetako langile bezala, eta gehienbat instituzio desberdinentzat, berarentzat lan egiten dugulako eta nire ustez beraiek arduratu behar dutelako neurri handi batean.

Ana M^o Indaburu (EEZko Familia Langileak eta ordezk. sindik.)

Goizueta euskalduntzen!

Gutun honen bitartez adierazi nahi genuke herriko Udalak herrian jarritako hainbat karteekin ez gatzozela bat. Izan ere, gaur egun Goizueta bezalako herri euskaldun batean denok ulertzen dugu euskara eta ez dugu beharrezkoa ikusten hizkuntza arrotzeko seinalerik jartzea, honako hiru kasu hauek bezala: Suhiltzaileen egoitzan ageri zaigun «bomberos/suhiltzaileak». Pilota-plazako markagailua, hau gainera espagnol hutsez idatzia. Sendagilearen etxean dagoen plaka, hau ere bi hizkuntzetan idatzia.

Gainera, kontutan hartu beharko genuke, gure helburua Euskal Herri euskaldun bat eraikitzea dela. Honengatik, iruditzen zaigu, guztion egin beharra dela gure hizkuntzaren aldeko eta beraren erabilerraren aldeko aurrerapausoak ematea.

Hau dela eta, Udalarengana zuzendu gara beraiek ere euskararen

aldeko konpromisoa har dezaten eskatzeko eta kartel hauek euskara hutsean jar ditzaten.

Beraz, gure eskaria kontutan hartuko dutelakoan eta hurrengo batean akatsa errepikatuko ez delakoan agurtzen gara.

Bide batez, zure herrian ere euskararen aldeko ekintzak burutu daitezen animatzen zaitugu.

Goizuetako Segi

Goizuetako inauteriak eredugarri

Zoragarria eta poztekoa benetan azkeneko aste hauetan herrian eman den eztabaida; Batzuk igande eguerdian hobe dela, beste batzuk zagi dantzari protagonismoa kentzen zaiola, zaharragoek berriz, astearteko ohitura dela moztotearena, gazteek berriz ezin dutela denera iritsi, denborarik ez dagoela... Mahai baten in-

guruan herri guztiko adin guztietako jendea, herriko inauterien inguruan hausnartzen eta beraiek hobetu asmoz, bakoitza bere ekarpena egiten.

Benetan eredugarria herriko jai hauek darabaten bidea. Eredugarria horrexegatik, herritarrok direlako inauteriak eta herritarrok erabakitzen dugulako zer eta nola nahi dugun.

Nahiz eta azkenean asteartean izan aurten ere «karrozak», benetan jaien izaeran, izaera herritarrean, alegia, eman den irakasgaia ikustekoa izan da. Honela kudeatzen jarraitzen badugu herriko jai guztiak, lasai egon, herria izango da hemen irabazle nagusia. Besterik gabe, zorionak denoi, eta dudarik gabe; Jaiak herritik eta herriarentzat!! Gora Goizueta inauteriak!!

Gorka Irazusta L. Goizuetako moztoteak



sarnoh
gestioa ohartzea
C/ de Artagona 25 bajo 31700 Bera (Navarra) T: 948 63 08 99 www.sarobe.net




HERRIARTEKO ETXERIKO ERREKTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
T: 0559542519
Maïken eta Véronique
SARA



PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN



Karlos Alzugaray
FISIOTERAPEUTA
OSTEOPATIA

Haur jaioberrientzako osteopatia tratamenduak

Itzea 20 • 31780 Bera • Navarra
T. 948 630 187 M. 607 853 208

KULTURA

Nafarroako Haur Kantari Jaialdiak Elizondoko Lur aretoan irekiko ditu ateak

Izen emateko epea martxoaren 1a bitarte egonen da zabalik

ttipi-ttapa

Abian dira Haur Kantarien Jaialdiak 2007. Kantuan aritzea gustuko dutenek, lehiaketetako presioak alde batera utzi eta gozatzeko aukera izanen dute martxoaren 3tik aitzinera Nafarroako hainbat herritan eginen diren saioetan.

Euskal Kantuzaleen Elkarteak Nafarroan euskaraz abesteko da-goen ohitura aberatsa mantendu eta bultzatzeko asmoz antolatu duen ekitaldia da kantari jaialdia, haurrei espresuki bideratua. Izena emateko epea martxoaren 1a bitarte egonen da irekia. Horretarako Euskal Kantuzale Elkartearekin jarri beharko du harremanetan: 948 141812 telefonora deituz edo euskokultur@terra.eshelbidean.

Helburua argia da: kantuzaleekin ongi pasatzea. Bide batez, Haur Kantarien Txapelketak ematen duen presioa kendu nahi dute anto-



ARTXIBOKOA

Aurtengoan ere kantuzaleetasunaz gozatzeko aukera izanen dute Nafarroako haurrek martxotik aitzinera eginen den Haur Kantarien Jaialdian. Argazkian Doneztebeko Agorreta taldeko kantariak ageri dira, Elizondoko Lur aretoan egindako saioan. Aurten ere lehenbiziko saioa bertan eginen da.

latzaileek, «*kantua ez delako lehiatzeko, disfrutatzeko baizik*». Gisa berean, kantatzeak ematen duen gozamen ere hedatu nahi dute. Hala, hainbat txokotan antolatu dituzte ekitaldiak.

Aukeran, bakarka, binaka edo taldeka, eta

abestia zaharragoa, berriagoa edo norberak sortua. Jaialdian parte hartzeko ikastetxe bakoitzak bi talde, bikote bat eta bakarlari bat aurkeztu ahal izanen ditu. Partaide bakoitzak kanta bat eginen du, norberak aukeratutako abesti bat.

Euskal Kantuzaleen Elkartetik jakinarazi dutenez, aurtengo aurrekontua 12.000 euro ingurukoa da, eta kopuru hori Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Kutxak eta Baztan, Lizarra, Lekunberri, Antsoain eta Iruñeko Udalen laguntzekin lortuko da.

JAIALDIKO LEHEN SAIOA ELIZONDON EGINEN DA MARTXOAREN 3AN

Aipatu bezala, eskualdean irekiko da Haur Kantarien Jaialdia, Elizondoko Lur aretoan, martxoaren 3an, 18:00etan. Hurrengo, martxoaren 10ean eginen da, 11:30etan, Lizarrakoko Golem zinemetan. Martxoaren 17an, Lekunberriko 31 Aretoan izanen da 18:00etan. Antsoaingo saioa, berriz, martxoaren 24an eginen da, 18:00etan.

Martxoakantuan igarorondotik, bukaerako saioa apirilaren 1ean eginen da Iruñeko Gaia-rrerantz. Saio bakoitzera inguruko partaideak joanen dira. Azken saiora, berriz, aitzinako saioetan nabarmendutako partaideak. Aipatu, bukaerako saioaren ondoren, interpretatutako kantekin disko bat grabatzea aurreikusituela jaialdiko antolatzailerak.

PERSIANAS TOLDOS BAZTAN

TOLDOAK salmenta-konponketa-alkairua-errotulazioa
MOSKITERAK-PERSIANAK motorizatuak-venecianak
PVCzko LEIHO eta ITXITURAK

Tel-Fax: 948 631 003
Bidaxoa, 66 behea - BERA

BEHETIK
aulki jasotzaileak

943 372 870

BERA

Kirol ekitaldietarako diru-laguntzak eskatzeko epea zabaldu du udalak

Irabazi asmorik gabeko herriko elkarteek eta Beran errolatuta daudenen eska dezakete

Amaia eta Ainhoa

Udaleko Kirol Batzordeak diru-laguntzak eskatzeko epea ireki du eta otsailaren 28a bitarte aurkezten ahal izanen dira proposamenak. Diru-laguntzak emateko irizpideei dagokierenez, diru-laguntzak borondatezkoak dira, laguntzak ematea ez da derrigorrezkoa eta arau orokor bezala, ez dira aktibitateen kostuaren %50a baino handiagoak izanen. Gainera, ezin izanen da diru-laguntzen errebisioa eskatu. Horrez gain, herriko elkarteek, dirua irabazteko helbururik ez dutenek, eta Beran errolatutako pertsona fisikoek eska dezakete laguntza.

Diru-laguntzak emateko orduan, kirolaren promozioak %28 balio izanen du, bizitza osorako kirolaren kultura sortzeak %10a, guztientzako kirola bultzatzea %5a, bertako kirolaren promozioa %6a eta kirol praktika berriei bultzada %5a. Bi dira otsailaren 28a baino lehen Herriko Etxeko bulegoetan aurkeztu beharreko dokumentuak: udal bulegoetan edo www.berakoudala.net orrialdean eskuratu dai-



ARGAZKIA: GOIKO

Inauteriak otsailaren 15etik 19ra izanen dira

Herri batzuetan dagoeneko ospatu badira ere, gure herrian aste honetan ospatuko ditugu inauteriak. Ortzegunarekin hasi eta astelehenera bitartean luzatuko dira. Kaldereroak, inudeak eta artzaiak, zingar-arraultze, eta bertze hainbat ekitaldi antolatu dituzte Berako Kultur Batzordeak eta Gure Txokoa Elkarteak herritarrek eta kanpokoek inauterietaz gozatu dezaten. Hala ere, guztiak ongi joateko aintzinetik prestatu beharra dago eta horretarako ensaioak egin behar dira. Kaldererotarako ensaioak otsailaren 14ean eta 16ean izanen dira arratsaldeko 7etan Kultur Etxean eta inude eta artzaietan ateratzeko, berriz, otsailaren 15ean eta 16ean eginen dira, 20:30ean Eztegarra pilotalekuan. Egunez egun inauterietako ekitaldien berri izateko, ikusi ale honetako inauterien inguruan prestatutako gehigarri berezia.

tekeen inprimaki sinatua eta diru irteera eta sarreraren aurrekontuaren banaketa.

Kiroldegiko ordutegi berria

Toki Ona kiroldegia larunbatetan ordutegi berria izanen du otsailetik aintzinerat. Aste-

teko gainerako egunetan orain arteko ordutegi bera mantenduko da, baina larunbatetan, kiroldegiko erabiltzaileen beharretara egokitzeko helburuarekin, 9:30etatik 14:00etara eta 17:30etatik 20:00era irekia izanen da.

Beldurrezko istorioak

Berako Liburutegiak eta Kultur Batzordeak antolatuta, otsailaren 23an Miren Camison ipuin kontalaria liburutegian izanen da arratsaldeko 7etatik aintzinerako beldurrezko istorio ezberdinak kontat-

zen. 6 urtetik goitiko haurrentzako saioa eskainiko du ipuin kontalariak.

Eszena Dantza Jaialdia

Azken urteetan bezala, aurten ere Eszena dantza jaialdia ospatuko da Beran. Nafarroako Gobernuak eta Berako Kultur Batzordeak bi ikuskizun antolatu dituzte, martxoaren 3an bat eta martxoaren 18an bertzea. Lehendabizikoan, martxoaren 3an, Danzas del Mundo konpainiak Danzas del mundo izeneko ikuskizuna eskainiko du. ikuskizun aniztuna da eta munduko lau bazterretako dantza estiletara hurbiltzea du helburu. Publiko guztietarako egokia da. Bigarren saioan, berriz, martxoaren 18an, Ertza taldeak Look ikuskizuna eskainiko du, itxurakeria edo irudiaren inguruko gogoeta.

Aipatutako bi saioak Berako Kultur Etxean izanen dira, arratsaldeko 7etan. Saio bakoitzeko 5 euro ordaindu beharko dira, hala ere, bi egunetarako abonua 8 eurotan eskuratu daiteke.

Lanchas
 PARKETAK - TARIMAK
 KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
 ESTALDURA OROKORRAK
 Bera - Tfnoa: 948 630 735 - 407 406 781

ALBERTO RETEGI
 abokatua
 abokatua
 © 948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

LABEZAR
 Tel: 948 631 076 - BERA

LESACA

Gatz-zakuak banatu ditu Udalak baserri auzoetan

Elurrarekin eta hormarekin izaten ahal diren arazoak moldatzeko

Aitor AROTZENA

Inauteri giroan murgilduko gara aste honetako Ortzegun Gize-neko eskearekin eta segidan etorriko dira igandeko zako-zaharrak, asteleheneko karrozak, Fraindarren eta Goitarren joan-etorriak... Neguko besta handi hauen egitarauaren xehetasunak aldizkari honetako erdiko gehigarrian dituzue eskura.

Neguk dakarren berte ondorioak hotza, elurra eta horma izan oji dira. Lehenbiziko elur eta hormak urtu ziren, baina zenbait auzoetako baserriarrek arazok izan zituzten autoarekin etxetik atera edo etxera sartzeko. Hori dela eta, oraindik negu luzea gelditzen denez, Udalak 20 Tonagatz baino gehiago erosi du. Horietako batzuk joan den astean baserri auzoetan banatu zituen. Auzoberrin Gardelko Bagoetako bidegurutzean utzi ziren gatz-zakuak,

Endaran ermitan eta Zalan Oinarketan. Handik, baserriarrek beraiek etxera eraman zituzten, beharrez suertatzen diren hurrengoan erabili ahal izateko. Nabaz, Frain eta Izotzaldean ere banatu dute gatzak. Halere, oraindik gatz-zakuak badaude su-hiltzaileen parkean dagoen udal biltegian. orregatik, beharra duenak Herriko Etxeara deitu eta biltegiara joan daiteke gatzaren bila.

Rafa Maritxalar bigarren Nafarroako kross luze txapelketan

Hiru Herri taldean ari den Rafa Maritxalar korrikalariak bigarren postua eskuratu zuen Nafarroako kross luze txapelketan. Otsailaren 4an Altsasun egin zen proban Gabriel Garin taldekidea izan zen txapeldun. Honela, taldeka Hiru Herri izan zen txapeldun.



ARGAZKIA: JON ALTZUGUREN

Santa Ageda bezperako kantuek

Eguberri eta inauteri garaiko eske eta puxka biltzeak nolabait lotuz, Tantarumairu ikastolako ikasle, irakasle eta gurasoak karriz karriz kantari eta eskean ibili ziren Santa Ageda bezperan, otsailaren 4an.



UTZITAKO ARGAZKIA

Udal hauteskudetako aurkezteko asmoa duela jakinarazi du Ezker Abertzaleak

Otsailaren 3an Sumusako Atakan egindako agerraldian aipatu zuten, Ezker Abertzaleak hurrengo udal hauteskudetara aurkezteko asmoa du: «Gure herria maite dugulako, Euskal Herri hobe bat nahi dugulako, herriarekin egin nahi dugulako bide hori, herri boterea indartuz eta herriari udalean parte hartzeko aukera bueltatuz, hurrengo hauteskudetako egonen gara». Ezker Abertzaleko kideak ez daude ados PNVk herrian eta UPNk Nafarroako Gobernutik herriari ezarri dioten eredu sozialarekin: «Guk berte eredu bat nahi dugu, ezkerretik eraiki nahi dugu gure herria eta badugu horretarako alternatiba. Herri honek behar duen alternatiba nola eraiki eztabaidatzera goaz guztion artean». Ezker Abertzalearen egiteko modua parte hartzailea, garbia eta zintzoa dela jakinarazi dute.

TALLERES BERRIZAUN
GASQUINERA LESACA
IMANOL TELLETXEA ZUZAYA
Tfnoa.: 948 63 74 60 • 31770 Lesaca

XATURETXEA
ZAZPI
JATETXEA
T: 948 637 027 • LESACA

IRU BIDE
Estrategia • Asaltor
Biarritzako 3. Lesaka
Tel: 948 637 127

GOZZ-ALDE
JANAREN 20
GURE HERRIA MAITE DUGULAKO

ETXALAR

Haurrek hasiko dituzte inauteriak Ortzegun Gizenarekin

Otsailaren 19 eta 20ean nagusien txanda izanen da

Joseba eta Nerea

“Urtzaingizen, urtzaingizen, zingararraultze, bat ezpada bertze, biyek hobe”. Horixe adituko da ortzegun honetan herriko karrketan. Ilusioz abestuko dute haurrek urtatxak biltzeko abesti ezaguna, etxez etxe eskean dabilozan bitartean. Horixe izanen da inauterietako lehen ekitaldia.

Goiz osoa etxez etxe eskean pasatu ondotik, plaza bazterrera bilduko dira haurrak arratsaldean. Urteroko ohiturari segituz, herrian barna kalejira eginen dute, trikitilari eta musikariek lagunduta. Auzoetan geldialdiak eginez, antzerkiak eskainiko dituzte, bertara bildutako herriarrek ikusteko. Egun handia izaten da herriko tikiarentzat Ortzegun Gizena. Eskolan aspalditik dabilza antzerkiak entsaiatzen eta ilusioz agertzen dira be-

ti jendaurrean. Urtetik urtera antzespen ederragoak eskaintzen dituzte eta aurten ere bat baino gehiago harrituko da haurren lan bereziekin. Horixe erran digute behintzat, Landagain eskolatik. Hitzordua ortzegunean arratsaldeko 3etan da.

Astelehen eta asteartean nagusiek hartuko dute erreleboa. Etxalarren deitzen zaien bezala, “Haundien inauteriak” ospatuko dira, otsailaren 19 eta 20an, urteroko ekitaldi eta ohiturekin. Astelehenean 60 bat lagun baserri berrir eskean ibiliko dira. Goizean elkarrekin gosaldu ondotik, bi taldetan banatuko dira; batzuk goiko auzoetara joanen dira eta bertzeak beheko auzoetara. Eguerdian talde bakoitzak baserri batean egiten du bazkaria; goiko auzoek Usategietako usazaleen txabolan eta



beheko auzoek Armitxen. Arratsean, Antonion bilduko dira guztiak afaltzera.

Asteartean orga edo karrozen txanda izanen da. Eguerdia aldera plaza bazterrera agertuko dira hainbat koadrilek egindako karrozak, eta kalejiran ibiliko dira, trikitilari eta bertzelako mozorroekin batera. Eguerdiko bazkaria Herriko Ostatuan izanen da.

Aurten berrikuntza gisa, gazteen arteko joakoak eginen dira astearte arratsaldean. Gazteek eurek antolatuta, parte hartu nahi duten guztientzat irekiak izanen dira. Baldintza bakarrak 16 urte baino gehiago izatea eta ongi pasatzeko gogoia dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

Kinta batzuk nahiko tikiak izaten dira, eta bertze kinta batzuekin elkartzen dira igandeko bazkari-rako. Umorea eta giro ona ez dira faltatuko egun horretan.

Kinto bestak

Igande honetan, otsailak 18, kinto-bestak ospatuko dira. Azken urteotako martxari segituz, bazkarien aitzakian, jende aunitz bilduko da herri aldean. Ostatuak

aspalditik beteak daude bazkarietan, eta arratsalde partean ere gainezka egonen dira. Berta arratseko ordu tikiak arte luzatuko da, bertze makurrik ez bada.

Larkilana

ARQUITECTURA ETA HIRIGINTZA

ESTRATEGIA PROIEKTOK
URRANTZAKO PROIEKTOK
ETXE BERRITZAK
LABORAK
KONSULTAK
INFORMATIA 3D

SANTIAGO 55 2ºB ELIZONDO TLF 948 581 831

ATM S.A.

AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS S.A.

Igantzikoko Bentak
& **948 63 74 11**

- Txapa mozketak eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Garraio zintak eta mahaia.
- Mantenu rodilloak.

ARANTZA

Pelettikiko ludoteka zerbitzuak ikasturtea abiatu du urte hasieran

Julen Zelaieta beratarra ludotekako begirale lanean ari da

Nerea ALTZURI

Ilbeltzaren 2az geroztik ludotekak bere ateak irekiak ditu. Iaz udazkenean adierazi moduan, guratso batzuk ekimen hori abian paratu eta gauzatu da honezkerok. Hilabete pasatxo egoitzaren egoitzapen lanetan aritu ondotik, aski xoko txukuna gelditu da orain Pelettikiko gunea. Oroitzapen ederrak gordetzen ditugu xoko horretaz: Juanita andereñoarekin hainbat ikasle izan ginen ikastolako hasierako urte haietan eta orain ludotekan dituzten haurtxoen guratso batzuk ere ederki gogoratzen dituzte ikasturte haiek. Geroago, Aizali gazte taldearen egoitza izan zen zenbait urtez eta berriki arte berriz, Behar Bidasoa Bidasoaldeko Gobernuak kanpoko erakundeak herriaren duen taldeak arropa bilketarako erabiltzen zuen.

Dindaia Fundazioak antolatuta, Cederna Ga-



ARGAZKIA: EDURNE ZUBIETA

Zortzi neska-mutikoak gustora joaten dira goizero ludotekara.

ralurrek bitartekari lanak egin eta herriko eskolak eta Udalak lagunduta aintzineran eraman da ludotekaren proiektua. Dindaia fundazioak bi urteko haurrentzat ludoteka antolatzen du eta diru-laguntza batzuk tar- teko, eta guratsoek hilabetero egiten duten ordainketarekin martxan jarri zen egitasmoa

udazkenean. Orduan egin zen begirale lane- tarako arduradunaren hautaketa proba eta aurkeztutako bortz lagune- tatik puntuaziorik altue- na Julen Zelaieta bera- tarrak lortu zuen.

Aski ezaguna da Ju- len, batez ere bertsola- ri bezala hainbatetan ikusi dugu plazetan. Be- rekin solasteko aukera

izanta, duela bortz urte akautu zituen arlo ho- nen gaineko ikasketak eta lantegi batean den- boraldi batez lan egin ondoren aukera hau suertatu zaio. Hasieran beldur pixka bat baldin bazuen ere bakarrik lan honetan murgiltzeko, erro- nka bat izan omen da beretzat. Aste bat- zuz pasatu diren hone-

tan, gustura omen da- go. 9:00etatik 13:00ak bitarteko lanaldia du. Zortzi haurtxo joaten dira ludotekara, edo beuren gurasoek erra- ten duten bezala, haur- zaindegira. Bi eta hiru urtekoak dira eta herri- ko eskolan hasi aintzi- nean egokitzen gero ez zaie batere gaizki eto- rriko. Beñat, Gaizka, Lo- rea, Mikel, Aitor, Leire, Aiora eta Imanol hagitz kontent joaten omen di- ra goiza pasatzera. Hel- du den uztaila akabe- rara bitarte ikasturtea lu- zatzea espero da.

Berria txapelketan aitzinera

Ilbeltzaren 27an jo- katu zuten Ekaitza el- karteko pilotariak Berria txapelketako lehen kan- poraketa. Hiru partide- tako tantuak hartzen di- ra kontuan eta Ekaitzak 58-54 irabazi zion Za- ramagari herrian. Hu- rrengo kanporaketa martxoaren 3an jokatu- ko dute Burlatako Zu- garralde taldearen kon-

ZJ
Zalain
jatetxea

Hostala
14 logela,
bainu eta
TBRekin
Bera - Nafarroa

Toailak-Mantelerak-Oheko maindreak
Eskolako haurren mantalak etab...
bordatzan ditugu

Herriko bestetarako, kamisetak, eta blus
perla bakoitzaren logotipo eta izenekin
bordatzan ditugu

Elorri Plz. Berria 4-ra eta ikusi bertako eskaintza!!! Tel: 948 637 640 - 689 481

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa • saneamendua • gasa

Tel:
948 634 179
ARANTZA

ALBERGIA • JATETXEA

BAR
Botxo
OSTATUA

IRONE - GOZOTEGIA

Aitzate, 19-948630786 • BERA

BORTZIRIAK

«Euskara lan mundura» liburuxka aurkeztu dute

Bortziritako Lan Munduko Batzordearen eskutik

ttipi-ttapa

Bortziritako Lan Munduko Batzordeak enpresetan euskararen erabilera sustatzeko ekarpen berria garatu du. Bide horretatik garatu eta aurkeztu zuten batzordeko ordezkariak ilbeltzaren hondar aldera «Euskara Lan Mundura» izeneko liburuxka.

Enpresa munduan aurrerapausoak emateko garaia dela iritzita, euskara laneko hizkuntza izateko eskura dauden baliabideak bildu dituzte liburuxkan, tartean, Bortziritako egoera soziolinguistikoari buruzko informazioa ere bai.

Proiektu berri honen

gibelean Bortziritako Euskara Mankomunitateko Lan Munduko Batzordea dago, Bortziritako Euskaltegia eta Euskara Mankomunitateko teknikariekin batera. Baina dagoeneko eskualdeko hainbat enpresatako ordezkari bat egin dute ekarpenarekin: Arcelor, Condesa, Savera, Funvera, Martiko eta Zelaietakoe, hain zuzen. Halere, 20 langiletik goiti dituzten enpresa guzietako ordezkari eta arduradunei argitalpenak bidaltzeko asmoa dute.

Egitasmoa aurkezterakoan, euskararen erabilera planen aldeko ekimenaren berri ere eman zuten. Liburuxkan



ARGAZKIA: JON ALTZUGUREN

Bortziritako euskara teknikariek Bortziritako enpresatako hainbat ordezkari parte hartu zuten «Euskara Lan Mundura» liburuxkaren aurkezpenean.

adierazten denez, «*Erabilera plana enpresa euskalduntzeko bidea izanen litzateke*», enpresaren ezaugarrietara moldatua, bertzeak bertze, irudi korporatiboa, eta barne zein kanpo harremanak euskalduntzeko. Euskara sustatzeko balioko duten diagnostikoa, baliabideak eta planak ageri dira. Gisa berean, erabilera plana PDCA zikloan oinarritzen dela erran dute: planifikatu, egin, egiaztatu, doitu.

12 ARRAZOI PISUZKO ERABILERA PLANA ABIATZEKO

Argitalpenean erabilera plana abian jartzeko «*pisuzko arrazoiak*» ere bildu dituzte, lau puntutan laburbilduak. Hasteko, enpresek gizartean erantzukizuna dutetazko diagnostikoa, baliabideak eta planak ageri dira. Gisa berean, erabilera plana PDCA zikloan oinarritzen dela erran dute: planifikatu, egin, egiaztatu, doitu.

garrantzitsua» dela erraten da. Bezeroak bere hizkuntzan erosteko aukera izatea «*baliu erantsia*» dela ere azpimarratzen dute, eta lehia korra izan nahi duen enpresak euskara ere kontuan hartu beharko duela. Arrazoiak arrazoi, plangintza abiatu aitzin aintzat hartu beharreko puntu bat ere aipatzen dute liburuxkan: «*erabilera da ardatza, euskara hiztunak eguneroko zereginetan euskara erabiltzen hastea*».

1951tik *lentzeria-etxea*
Casa Cambra

Merkealdia

edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak
 toailak • kuxinak • albornozak • mantelak

Tafalla, 13 • IRUNEA • 948 230 634

DONEZTEBE

Javieradan parte hartzeko autobusa antolatu du Errekak

Izen ematea martxoaren 7a baino lehen egin behar da Titi ostatuan

ttipi-ttapa

Urtero Xabierko gaztelura egiten den erromesaldian, Javierada fatmatuan parte hartzeko autobusa antolatu du aurten ere Doneztebeko Erreka kirol elkarteak. Martxoaren 10ean izanen da irteera. Apuntatzeko, Titi ostatura joan behar da edo 948 450271 telefonora deitu. Dagoeneko izen emateak egiten ahal dira eta epea martxoaren 7a bitarte zabalik izanen da. Autobusaren prezioa 15 eurokoa izanen da Erreka elkarteak bazkide ez direnentzat eta 12 euro bazkideentzat.

Irteera goizeko 5etan izanen da eta autobusa Iruñeraino joanen da. Handik Xabiererra dau den 42 kilometroak oi-



ARTXIBOKOA

Iruñetik 42 kilometro oinez egin ondotik, Xabierko gazteluko atarian egiten den meza aditzen dute erromes aunitzek.

nez egin beharko dira. Gero, autobusak Xabierren bertan hartuko dituzte eta Doneztebe-

ra itzuliko dira. Xabiererako erromesaldia erlijio ospakizuna da berez, baina oinez ibiltzea

gustoko dutenek eta lagunarte atsegina pasatu nahi dutenek ere ederki gozatzen dute.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA TB

Gorka Bidegain da Burrenbako lehendakari berria.

Burrenbak zuzendaritza batzordea berritu du

ttipi-ttapa

Burrenba Gazte Kultur Taldeak zuzendaritza batzordean aldaketak egin ditu. Horrela, orain arte lehendakari postuan egon den Jokin Apeztearene ordez, Gorka Bidegain izanen da elkarteko lehendakaria. Diruzain lanetan, Patricia Mariñelarena arituko da, Asun Ezkurraren ordez. Zuzendaritzako kide berriak bazkideek hala erabakita izendatu dituzte.


Lizun
 GAZTANDEGIA
 Etxeko Ardi Gazta
 Petxenekoborda • SUNBILLA • Tel: 948 450 862


www.ttipi.net
 info@ttipi.net
 % (0034) 948635458


BORTZIRI
 UNSIÓ ANAIAK
 sukaldarako altzariak
 ERAKUSKETA
 Bereau etxea • LESAKA
 Tel.: 948 637 266 •


APITTU ALUMINIOAK
 Aluminiozko leihoak, Kontraleihoak, Ateak
 Garajeko ateak eta Barandilak
 Otsango Auzoa, 7 - Pab. - LESAKA • Tel/Faxa: 948 638 297
 apittu@hotmail.com


ANTZUZELA
 S.L.
 Tel: 948 631 317
HARRI NATURALA
 Alabotzen eta Lantzen
 Harriak, Harriak, Harriak, Harriak, Harriak, Harriak, Harriak, Harriak
 Harriak, Harriak, Harriak, Harriak, Harriak, Harriak, Harriak, Harriak
 ZINGARRIA
 ADURAK
 ZILAK
 Inongo errepeda
 BERA

SUNBILLA

Jende ugari ibili da inauterietako ekitaldi guzietan

Desfilearen 25.urteurrena ospatzeko zirkua prestatu zuten



Jaione OTXANDORENA

Inauterietan hagitz temperatura hotza izan badugu ere, ez da jendea izitzeko gai izan, ekitaldiek arrakasta handia izan baitute. Ortziraleko emakumeen afarian 114 emakume bidu ziren giro ederrean. Emakume gehienak taldeka mozorratzen dira eta aurten ere halaxe izan da: Tuna bat, mimoak, flamenko taldea, hirukiak, indiarak eta bertze hainbat mozorro ikusi ahal izan ziren. Afalondotik karaokea eta Mikel Salaberriren musika izan zuten. Gazteen ohiko es-

keaz gain, larunbat arratsaldean haurrentzat berendua eta Ageralderen musika izan zen Ulibeltzak elkartearen. Larunbat gaueangiro polita zegoen ostatueta, baina igandeko karrozen desfilearako indarrak gordetzen dituzte jendeak. Igandean 11:00etan hasi zen karrozen desfilea: Aita Santuaren bigarren bisita, barraskilo bihurriak, Hamelingo txirularia, twister, txirindulariak, safaria, Malaia operazioa, boxeo izarrak, Grenepeaceko itsasontzia eta tortilla, opilak, gaztainak eta ardoa doan

banatzen dituzten karrozak ikusteko aukera izan zuten herrira etorri ziren 2.500 lagun inguruk. Halere, plater nagusia frontoian izan zen. Desfilearen 25. urteurrena zela eta, Sunbillako zirkua mundiala egin zen. Frontoia jendez beteta zegoen, aunitz lekuri gabe gelditu ziren. Pailazoak, lehoi hezitzaile xelebrea, gizon eta ostrukaren arteko lasterketa, nabal jaurtitzaila eta jendea ahozabalik utzi zuen «*hombre bala*» izeneko probakjendearen irrifarrak eta txaloak erakarri zituzten.

Ondotik bazkaria izan zen Ulibeltzak elkartearen, eta Jalisko Banden musikarekin akitu ziren inauteriak.

Sagardotegira bidaia

Ulibeltzak elkarteak antolatuta, martxoaren 10ean bidaia egingen da Astigarragako Oialume sagardotegira. Aurten afaria izan beharrean bazkaria izanen da. 13:00etan aterako da autobusa Sunbillatik eta 20:00ak aldera izanen da itzulera. Txartelak Fondan eta Itturburun egonen dira salgai, ot-

sailaren 25a bitarte.

Ulibeltzak Mendi Taldea

Ulibeltzak mendi taldeko partaideak otsailaren 17an Peña Alba eta Arrikulunkara joanen dira. 7:30ean aterako dira herritik. Joan nahi duenak Vidal Ibarri erran behar dio.

Eskolako jangela

Eskolako jangelari buruz solasteko bilera egingen da otsailaren 21ean, 17:00etan Ulibeltzak elkartearen. Datorren kurtsorako izen emateko 606 172156ra

ITUREN

Eskola berria eskatu zuten ikasle, irakasle eta gurasoek

Iruñean izan ziren otsailaren 8an

Arkaitz MINDEGIA

Eskolaren egoera penagarria da. Orain 12 urte elkarrizketekin hasi ziren, baina ez diote inolako lehentasunik eman administrazioan. Ikasleen baldintza txarrak direla eta, bizi duten arriskua ikusirik, eta guttieneko baldintzak

betetzen ez dituzenez, Iruñera joan ziren ikasle, irakasle eta gurasoak eskola berria eskatzera. Eskolako ordezkariak Hezkuntza sailako arduradunarekin elkartu bitartean, kanporean ere aldarrikapena egin zuten, «Eskola berria Iturenen» zioen pan-

karta zabalduz eta joaldun ttikien soinuekin. Oihuak ere aditu ahal izan ziren: «*Eskola berria behar dugu!*». Harrigarria badirudiere, Foruzaingoak eta Espainiako Poliziak hurbiletik zaindu zituen ikasle, irakasle eta gurasoak.

Berez, urtarriaren



UTZITAKO ARGAZKIA

Eskola berriaren eskaria Iruñean aditu zen.

24an joatekoak ziren eskolatik Iruñera aldarrikapen hau egitera, baina elurraren ondorioz

atzeratu behar izan zuten. Oraingoan ikusiko da erantzuna jasotzen duten Iruñetik.

EZKURRA

Mari Jose Telletxearen heriotzak goibel eta triste utzi du herria

Otsailaren 3an hil zen, 31 urterekin, gaixotasun larri baten ondorioz

ttipi-ttapa

Gaur zeharo hunkiturik nator Ezkurrako berriak ematera, hau da neska gazte baten heriotza buruz zerbait aipatzera. Orain dela hilabete batzuk minbiziak bete betean harrapatu zuen Mari Jose gaztea, bere birrikak birrinkatuz eta azkenengo arnasa otsailaren 3an eman zuen.

Nolakoa zen agur esan digun 31 urteko neska? Sendi edo familia langile baten alaba eta bi anaien arreba. Ezkurran jaio zen eta gaztetxoa zelarik gurasoen granja batean lanean hasi zen untxiak hazten. Garai motz batean Ultzamako lantegian ere lan egin zuen,

baina urte gehienak bere etxean. Gaitzaren azarnak azaldu eta indartzen hasi zirenean lana utzi behar izan zuen.

Otsailaren 4an egin ziren hileta elizkizunak. Nik ez dut nere bizian hainbeste jende ikusi herri honetan. Ermitatik hasi eta Desalderaino bazter guziak kotxez beterik eta jende pilo bat elizatik kanpo. Zergatik jendearen erantzun aipagarri hau? Erantzuna oso errega da, bere nortasunagatik. Neska jatorra, atsegina, alaitsua, umoretsua, langile amorratua eta lagunena laguna. Herriko antolaketak guztietan parte hartzen zuen: jaietan, iñauterietan... sekulako afizioa zuen jokuetarako

eta mus txapelketetan txapela jantzi zuen behin baino gehiagotan. Edozeini laguntzeko prest. Oraindik gogoratzen dugu herriko gazte baten lan istripua, eta berak nola zaindu zuen ospitalean eta bere etxean, osatu arte.

Aipagarriena hau da, gaitza madarikatuak harrapatu zuenean aurpegi alaitsuz azaltzen zela kalean eta ez zuen onartzen jendearen urrikaltasunik, alderantziz, berak animatu. Guraso, anai eta lagunak dira lekuko. Ahalegin guztiak egin zituen gaitza menperatzen eta bazirudien irabaziko ziola, hobeto sentitzen hasi zelako, baina azkenean ez zuen lortu.



UTZITAKO ARGAZKIA

Mari Jose Telletxea otsailaren 3an hil zen. Bere heriotzak goibel utzi du Ezkurrako herria eta in-guruak.

Momentu txar honetan aholku bat bakarrik ematen eusartuko naiz sendi eta lagunei. Alde batetik, beldur eta lotzarrik gabe negar egiteko nahi gabe galdu duzuelako Mari Jose, eta beste aldetik, jendearen erantzuna ikusirik, bere

irudi eta izaera laztana, maitagarri, adoretu eta atsegina altxorra bezala gordetzeko zuen bihotzean eta harro sentitzeko horrelako emakumearen adiskidetasuna bizi eta gozatze-ko aukera izan duzuelako.

ITUREN-ZUBIETA

Administrari-laguntzailea kontratatu nahi dute bi Udalek

Amatasun baja betetzeko 17 astez arituko da

ttipi-ttapa

Zubieta eta Iturengo Udalen Batasunak, administrari-laguntzaile bat kontratatu nahi du, Amaia Otxandorenaren amatasun-baja betetzeko. Amatasun-baja hau martxo hasiera aldera hasiko da eta kontratuaren iraupena, hasiera batean, 17 aste-

koa izanen da. Kontratu luzatzen ahal da, ordezkatzen den langilea, edozein arrazoi dela medio, berriz lanean beranduago hasitzen bada. Lanpostua lortu nahi dutenek Eskola Graduatuaren titulua nahiz Lanbide Heziketako lehen mailakoa edo baliokideren bat izan be-

harko dute, euskaraz jakin eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuan inskribatuak egon, enplegu eskatzaile gisa.

Kontratua lanaldi erdikoa izanen da, lau ordu eguneko, 9:00etatik 13:00etara, astelehenetik ostiralera. Zubieta eta Iturengo udaletxeetan eginen du lan



ARGAZKIA: EDURNE ZUBIETA

Iturengo udaletxean bi ordu eta Zubietakoan bertze bi egin beharko ditu langileak.

langileak, udaletxe ba-koitzean bi ordu eguneko.

Interesatuak, eskabideak aurkeztuko dituzte Zubietako Herriko

Etxean, otsailaren 23ko goizeko 11k baino lehen. Froga ezberdinak otsailaren 26 eta 27an eginen dira Zubietako eskolan.

ZUBIETA

Errotako lanak egiteko bi langile kontratatu nahi ditu Udalak

Eskabideak otsailaren 23rako aurkeztu behar dira

tipi-ttapa

Zubietako Udalak, zerbitzu anitzetako bi langile kontratatu nahi ditu, errotan ehotze lanak, kanpo eta barrualdeko garbitasuna, instalakuntzen mantentzea, sarrerak kobratu, bisita gidatuak eskaini eta gisako lanak egiteko. Kontratuaren iraupena, hasiera batean, 10 hilabetekoa izanen da, martxoan hasita. Lanpostua lortu nahi dutenek eskolaritate ziurtagiria edo baliokideren bat izan beharko dute, euskaraz jakin eta

Nafarroako Enplegu Zerbitzuan inskribatuak egon, enplegu-eskaltzaile gisa. Euskara dakitela frogatzeko, Hizkuntza Eskola Ofizial baten emandako Gaitasun Ziurtagiria edo ofizialki baliokidetzat jotzen den titulazioa aurkezten ahal da, edo bertzenaz izangaiak hizkuntza maila aski duen zehazteko frogak gaindituz.

Interesatuak, eskabideak aurkeztuko dituzte Zubietako Herriko Etxean, otsailaren 23ko goizeko 11k baino lehen. Eskabideari atxiki

beharko diote kurrikuluma dokumentatua. Hautaketa egiteko euskarara probak otsailaren 26an, 9:00etan egingen dira eskolan. Otsailaren 27an, ordu eta leku berean, egin beharreko lanak buruzko ezaguera neurtuko zaie hautagaiei, zenbait galdera labur edo test bat idatziz erantzunez. Egun horretan ere epaimahaiarekin elkarrizketa egingen da eta lanpostuarekin erlazioatuak dauden gaitasunak baloratuko dira.

Urte sasoiaren ara-



ARTXIBOKOA

Errotako ohiko lanak egin beharko dituzte kontratatuko diren bi langileek.

bera, langileek lanaldi ezberdinak izanen dituzte. Behe-sasoian, aste batean bat eta hurren-

goan bestea arituko dira; udan, aldiz, biak batera arituko dira, bisitari asko izaten direlako.



Parrokia, 21 • DONEZTEBE
Tel: 948 450 266
Faxa: 948 450 617

Eztegara, 26 • BERA
Tel: 948 625 259

LAGUNTZAK ETA SUBENTZIOAK

Laguntza eta subentzioei buruzko informazioa astero eguneratua www.ttipi.net eta **Ttipi-Ttapa** telebistan ere aurkituko duzu

Toki-entitateei gazteentzat programak garatzeko 2007an emanen zaizkien diru-laguntzak

Non argitaratua: *NAO 14. zk., 2007/01/31*
 Onuradunak: *Nafarroako toki-entitateak*
 Epe-amaiera: *2007/10/31*
<http://www.cfnavarra.es/bon/071/F0700325.htm>

Naturaren Gelak integratzeko Programan parte hartzeko diru-laguntzak

Non argitaratua: *BOE 27. zk., 2007/01/31*
 Onuradunak: *540,56 eurorainoko 1.056 diru-laguntza norgehiagoka bitartez jasotzeko deia egiten da. Diru publikoa-ekin sostengatutako Espainiako ikastetxeetan matrikulatuta dauden ikasleek eska dezakete parte hartzea.*
 Epe-amaiera: *2007/03/02*
http://www.boe.es/g/es/bases_datos/doc.php?coleccion=indilex&id=2007/02077&xtlen=1000

Euskararen hizkuntz berrikuntzako sariak

Non argitaratua: *NAO 12. zk., 2007/01/26.*
 Onuradunak: *Proiektu edo esperientzia aurkeztu ahal izanen dute A, B edo D eredua irakasten duten Haur eta Lehen Hezkuntzako edo Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko guztiak.*
 Epe-amaiera: *2007/01/31*
<http://www.cfnavarra.es/bon/071/F0700992.htm>

Hizkuntza Murgilketarako programa, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak antolatuta, 2007ko udarako

Non argitaratua: *BOE 26. zk., 2007/01/30*
 Onuradunak: *bi asteko iraupena eta ingelesez eginen den udalekuetako batean parte hartzeko laguntza. Diru-laguntza hauek jaso ahal izanen dituzte 2006/2007 ikasturte honetan funts publikoen sostengua duten ikastetxeetan matrikula-*

tuta dauden ikasleek.

Epe-amaiera: *2007/03/16*
http://www.boe.es/g/es/bases_datos/doc.php?coleccion=indilex&id=2007/01977&xtlen=1000

Entitate pribatuek eskolan euskara sustatzeko jarduerak antolatzeko diru-laguntzak

Non argitaratua: *NAO 12. zk., 2007/01/26.*
 Onuradunak: *diru-laguntza deialdia, euskarazko jarduera osagarriak antolatzeko, "euskal idazleak eskolan" izeneko kanpainarako, "Bertso Eskolak" izeneko jardueretarako, eta "Haur Kantari Jaialdiak 2007" haur-kantuen topaketak egiteko, guztiak ere 2007. urterakoak, eskolan euskara sustatzeko jarduerak antolatuko dituzten entitate pribatuei zuzenduta.*
 Epe-amaierak: *2007/02/15; 2007/05/25; eta 2007/11/15.*
<http://www.cfnavarra.es/bon/071/F07009>

Informazioa hau Cederna-Garalur Elkartearen Europe Direct Europari buruzko informazio zerbitzuak emana da. Kontsultatu www.cederna.es webgunea, "laguntzak eta subentzioak" atalean

solaslagona
 egitasmoaren aurkezpena

- euskara ikasten ari bazara, zure euskara maila hobetzeko
- euskaraz badakizu, ikasten ari denari laguntzeko
- hizkuntza bat erabiliz ikasten delako!!

herritarrentzako aurkezpena

tsailaren 20an, asteartearekin, 19:30ean,
 Berako Liburutegian **zatoz!!!**

informazioa

- bertziritako Euskara Mankomunitatea
 T 948 634125 E bortziriak@euskalnet.net

solaslagonak behar ditugu!!!



INAUTERIAK

2007

Bera



Narbarte



Elizondo



Lesaka



Doneztebe



ERREKALDE
 PLATER KONKURTATUEK
 PINTXOKAK
 BARRUTIAK **ONGI PASA INAUTERIAK!**
 TEL: 948 630 254 BERA



ZUBIONDO
 Jatetxea
 sagardotegia jatetxea
 Alasta karrika
 TEL: 948 645 472 BERA NAFARROA

BIZIKLETEN
 SALMENTA ETA KONPONKETA

KATER-BIKE
 Kanttonberri, 1 • BERA
 948 63 12 18

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.
 Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
 Tel. Fax: 948 63 10 27

ONGI PASA INAUTERIAK!!

ikuilu
 ostaturia.bera PINTXOAK BOKATAK

XARETA
 DANTXARINEA OSTATUA

Bera



OTSAILAK 15 ORTZEGUNA ortzegun gizen

15:30 | **Ortzegun gizena** zingar-arraultze, haurren inudeak eta artzainak, berendua eta musika



OTSAILAK 17 LARUNBATA Kaldereroak

18:00 | **Kaldereroak**
 Herriko Etxeko Plazatik Altzatera

INAUTERIAK 2007



OTSAILAK 18 IGANDEA Inudeak eta artzainak

09:00 | Inudeak eta artzainak
Herriko karriketean barrena



OTSAILAK 19 ASTELEHENA Inauterietako astelehena

Goizean | Zingar-arraultze
18:00 | Kalejira Perkusioarekin Alzaten.

Argazkiak : GOIKO

21 ttipi-Itapa Inauterietako Gehigarria
440. zbk. 2007-02-15

borTIRUDI
bertairudi@telefonica.net

KARTELAK · KANPETA · BISERAK · TROSKEROAK (Nahi duzun neurri - dimituzekin)
FOTOKOPIA DIGITALAK · KOLORETAN, TXURI-BELTZEAN · PLANDAK
INKUADERNAZIOAK · PLASTIFIKAZIOAK · PEPEKTEGIA · BULEGO MATERIALA
DISEÑO GRAFICO · LOGOTIPOAK · ERROTULOAK · IMPRENTA

Estegun, 26 Eskaintza Behe D · BERA · Telf: 948 631 521

ANSONEA Jateboca

Eguzkeroko menua, karta eta
ateburutako menu bereziak

Terraza estalia eta Ziberkafea

Ferren Plaza 1 · 948 631 155 · BERA

**IZARRA
BENTA**

JANARIDENDA · OROIGARRIAK

Ibardin · BERA · 948 631 319

VENTA GORA

**MENUA
KARTA
OSTATUA
KAFETEGIA
OROIGARRIAK
AUTOZERBITZUA**

Ibardingoa gaina
Telf.: 0034 - 948 630 719
BERA

LEGARRA

- EGUNKARIAK
- ALDIZKARIAK
- LIBURUAK
- OPARIAK
- TABAKOA
- FOTOKOPIAK
- ENKUADERNAZIOAK
- PLASTIFIKAZIOAK
- FAX PUBLIKOA

TESTU LIBURUAK ENKARGUZ

Tinoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

BAZTAN BIDASAKO sagardotegiak

LARRALDEA LINDURRENBORDA

LARRALDEA eta LINDURRENBORDA
Txotx denboraldia irekia
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA LINDURRENBORDA
Telleria ondo • LEKARIZ Kubat ondo • LESAKA
948 452127 • 625 494317 948 637212

Tout POUR LA Fête

Estazio karrika, 13 (2 zubien artea)
HENDAIA • 00.33.0559.48.37.58

- Mozorroen alokairu eta salmenta
- Baserritar jantzien aukera zabala
- Mozorro guztietarako osagarriak
- Makillaje profesionalak
- Piroteknia artikulua



Lesaka

OTSAILAK 15 ORTZEGUNA arraultze-arraultze

10:00 | **Arraultze-arraultze**
Karriketan barrena



OTSAILAK 18 IGANDEA Zaku-zahar

17:00 | **Zaku-zahar ttikien**
eta **mairuen** kalejira.
Betiko ibilbidea.

18:00 | **Zaku-zahar** en kalejira.
Betiko ibilbidea.


19:00 | **Dantzaldia** Plaza Zaharrear,
GAUBELA taldearekin.

OTSAILAK 19 ASTELEHENA

10:00 | **Arraultze-arraultze**
Fraindarrak, Fraingo Auzoan.

12:30 | **Inauterietako orgak**
Plaza Zaharrear.

19:00 | **Dantzaldia** Plaza Zaharrear,
GAUBELA taldearekin.



INAUTERIAK 2007

Narbarate



OTSAILAK 15 ORTZEGUNA ortzegun gizen

Goizean Eskolako hurrek **herriari buelta** emanen diote.
Ondotik **Bazkaria.**
Atsaldean **Jokoak** izanen dituzte.



OTSAILAK 16 ORTZIRALA

Arratsaldean **Afaria** izanen da herriko akordiolariekin.

OTSAILAK 17 LARUNBATA

Goizean **Gosariarekin** emanen zaio hasiera egunari.
Herriko gazteak mozorraturik **etxez-etxe** ibiliko dira.
Gauean **Afaria** izanen da.



OTSAILAK 18 IGANDEA

Eguerdian **Bazkaria** izanen da ostatuan Salaberrik alaitua.



LUCIANO IRIARTE S.L.

Eskabazioak **ongi pasa**
Eskoilerak **inauteriak**

Lur Mugimenduak 948 59 21 39

Narbarate (Nafarroa) ☎ 649 94 71 81

t tipi
TXARTELA rekin
t tipi-ttapa doan eta
deskontuak

□ AUTO ETA BIZIKLETA TAILERRAK	
BEHARRA	Bera %10 Enkardiotan
BEHARRA	Bera %10 Enkardiotan
BEHARRA	Bera %10 Koronketan
BEHARRA	%15 Euzena eta aintziguadotetan
BEHARRA	%10 Oso-akademian
□ AUTO ESKOLAK	
BEHARRA	Bera %10 Matxutan
□ ARGAZKI DENDAK	
BEHARRA	Bera %10 Kamerak, emeletzako...
BEHARRA	Bera %10 Emebetza, NAW argazkian...
BEHARRA	Donostia %10 Emebetza
BEHARRA	Elizondo %10 Emebetza
BEHARRA	Elizondo %10 Produktuetan
BEHARRA	Elizondo %10 Produktuetan
□ ARROPA DENDAK	
BEHARRA	Donostia %10
BEHARRA	Bera %8 (30 eurotik goiti, eskura ord.)
BEHARRA	Donostia %10 Galtza-marka batzuetan ez
BEHARRA	Elizondo %10
BEHARRA	Elizondo %10 (30 eurotik goiti)
BEHARRA	Elizondo %10 (30 eurotik goiti)
□ BITXIDENDAK	
BEHARRA	Leizola %10 Bitxietan
□ ETXETRESNEN DENDAK	
BEHARRA	Leizola %10 Etxetresnen
□ ESTETIKA ZENTRUAK	
BEHARRA	Donostia %10 Kosmetikan (30 eurotik goiti)
BEHARRA	%10 Ennegalari artikuluetan eta kosmetikan, Merkaderietan ez
□ KIROL DENDAK	
BEHARRA	Elizondo %8 (30 eurotik goiti)
BEHARRA	Bera %5
BEHARRA	Bera %10 Kirol artikuluetan
BEHARRA	Leizola %10 Kirol artikuluetan
□ LENTZERIAK	
BEHARRA	Donostia %10 (30 eurotik goiti)
BEHARRA	Elizondo %10 (30 eurotik goiti)
BEHARRA	Leizola %10 Lentzerian
□ LIBURU DENDAK	
BEHARRA	Elizondo %10 Liburu eta ikas materialetan
BEHARRA	Leizola %10 Testuliburu eta liburuak ezik
BEHARRA	Leizola %10 opentzeko artikuluetan
□ OPTIKAK	
BEHARRA	Bera %10 (30 eurotik goiti)
BEHARRA	Elizondo %10 Antsojo graduatuetan
BEHARRA	Donostia %10 Antsojo graduatuetan
□ PENTSUA	
BEHARRA	Donostia %10 Zikloak, kategoria...
□ TINDATEGIAK	
BEHARRA	Donostia %10 (12 eurotik goiti)
□ ZAPATADENDAK	
BEHARRA	Bera %10 (18 eurotik goiti)
BEHARRA	Donostia %5
BEHARRA	Leizola %10

eskatu zure txartela
abantaila aunitz

948 635 458

www.ttipi.net

AROZENA OSTATUA

Gosariak eta bazkariak

Eguzki Eder, 3 DONEZTEBE Tfnoa:948450443



Doneztebe



Belarra
jaketxea
948 450 306
Ameztiak karrika
DONEZTEBE

INAUTERIEETAKO
BIDEOKAK 
DVD 
SALGAI
948 63 54 58




ttipi-ttapa
telebista

IRRINTZI



AURTENGO
INAUTERIAK UMORE
EDERREAN
PASATU

Merkatarien karrika 28
Telf.: 948 451826

OSTATUA DONEZTEBE

APARAN, S.A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estaltitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendako
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE



OTSAILAK 22 ORTZEGUNA

20:00 | **poteoa** herrian barrena.
21:30 | **afaria** Aranzoko Elkartean.

OTSAILAK 23 ORTZIRALA Baserriz-baserri

Goizean Gazteak **baserriz-baserri** ibiliko dira.

Bitartean, eskolako haurrek karrikaz-karrika **mozorro desfilea** egingen dute.

Eguerdian Arratsaldean **bazkaria** Aranzoko Elkartean.
dantzaldia

18:00 | Agerralde akordiolariarekin.
poteoa



OTSAILAK 24 LARUNBATA

Eguerdian Arratsaldean **bazkaria** Arozena ostatuan.
karroza eta mozorroen desfilea.



INAUTERIAK 2007

Elizondo

OTSAILAK 26 ASTELEHENA

17:00 | **haurren desfilea** ikastolako
parketik abiatuta.
Gauean | **koadrilen afariak**
eta parranda.



OTSAILAK 27 ASTEARTEA

Gaia: **San Fermin**

- 10:30** | **Salda** Merkatuko plazan.
- 11:15** | Zahar Etxera bisitaldia.
- 12:00** | **Txupinazoa** Herriko Plazan.
- 12:05** | **Jotak** Anoz Ahizpekin.
- 12:15** | **Poteoa** Santiago karrikan barrena.
- 14:30** | **Koadrilen bazkariak.**
Nahi duenarendako herri-bazkaria
Antxitonean (20€). Izena eman
behar da Antxitonean bertan.
- 17:30** | **Riau riau** eta **peñen irteera**
Txokototik.
Poteoa akordeoiekin Jaime Urrutia
karrikan barrena.
- 19:30** | **Su artifizialak** Txokotoko zubitik.
Gero | **Besta eta parranda...**

GOIZ-ALDE
ostatua
Hukera zabala kanula, bokata, pintxotan eta menuak
Tel: 948 581 334 - Jaime Urrutia, 8 - ELIZONDO

FANTXIKE Ongi pastu
inuteak!
Mertzeria - Opariak - Lentzeria
HAUR, GAZTE eta HELDUEN ARROPA
Jaime Urrutia, 15 - ELIZONDO
Tel: 948 580312

ANTXITONEA
Trinketea
Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea
Menu Bereziak
Braulio Irarte karrika
ELIZONDO
Tel: 948 581 807 - 948 581 853

ITURRALDE
pvc & aluminio
667 264 025 • 948 581 967
maxene@terra.es

ERRETEGIA ORDOKI LIKOREAK
Parrilan egindako haragi eta arrainak
Tel. 948 453 410 Fax. 948 453 376 - ARIZKUN
Ongi pasa inauteriak!



1945az geroztik



MAGNA

MAGNESITAS NAVARRAS, S.A.

E-mail: baztan@maglur.org

babeslea:



BAZTANGO MAGNA BKT





euskara

batzordea

mintzo

Malerrekako Euskara Zerbitzuaren argitalpena

2007ko
otsailak 15

Malerrekako Mankomunitatea, Euskara Zerbitzua, Merkatarien karrika 17, 31740 Doneztebe, Tfnoa: 948 451746

2007ko Hizkuntza Normalizaziorako Plangintza

Gehigarri honen bidez 2007. urterako euskara zerbitzuak presatatu duen Malerrekako hizkuntza plangintzaren zirriborroa aurkeztu nahi dizuegu. Plangintza honek Malerrekako hizkuntza egoera dauka oinarritzat, gure eskualdean 15 herri daudenez hagitx egoera desberdinak hartu behar dira kontutan plangintza hau aitzin eramateko.

Beheiti agertzen den taulan, aurten Mankomunitateak 46.000 euro inguru gastatuko ditu euskara bulkatzeko ekintzatan.

Jarduera hauen helburu nagusia euskararen erabilera handitzea da. Malerrekako herriak hagitx euskaldunak izanik, erabilera txikiak da, batez ere zenbait esparrutan: lan munduan, merkataritzan, erabilera idatzian eta batez eren eskualdeko herri nagusia den Donezteben.

Hortaz, Mankomunitateko euskara zerbitzuak antolatzen dituen ekintza gehienak erabilera bulkatzea dute helburu.

Erran behar da jarduerak hauekako batzuek sortzen dituzten gastuak Nafarroako Gobernuak ordaintzen dituela, baino urtea akitu arte ez dakigu dirulaguntzarik egonen ote den eta egotekotan zenbatekoa izanen den. Euskara bulkatzeko jarduerak Nafarroako Gobernuak ematen duen dirulaguntza etengabe jaisten doazela erran beharrekoa da ere.

2007. URTEAN HIZKUNTZAREN NORMALIZAZIORAKO PLANGINTZA PROPOSAMENA

ATALA	JARDUERA	AURREKONTUA
ADMINISTRAZIOA		
	Erabilpen kanpaina: - Egutegiak - Udaletxean euskaraz foiletoak «Euskara Batzordea Mintzo» Argitalpena	400,00 1.200,00
	Udal langileen euskalduntze plangintza	400,00
IRAKASKUNTZA/ AISIALDIA		
	Bertso eskolak Ituren, Doneztebe eta Sunbillan	2.500,00
	Bertsolaritza ikastaroa Donezteben	1.100
	Udalekuak	1.500
	CD eta DVD mailegu zerbitzua	400,00
	Helduen matrikulazio kanpaina	1000,00
	Haurrak D ereduak matrikulatzeko kanpaina	120,00
	Bertso-paper eta ipuin lehiaketa	750,00
	Euskarazko produktuen katalogoa	200,00
FAMILIA		
	Transmisio kanpaina: - "Euskara bai goxoa" - "Kontu txikiak" - "Xamarikoren Ipuinak"	1.600,00
KULTURA		
	Herrietako Kultur Ekitaldiak	1.500,00
	Nafarroan euskarari buruzko erakusketa	1.500,00
EUSKARA IKASTEAGATIK DIRULAGUNTZAK		
EUSKARA ZERBITZUA		
	Materiala (liburuak, hiztegiak...)	300,00
DIRULAGUNTZAK		
	Ttipi-Ttapa	8.095,06 + KPI
	Xorroxin	3314,92 + KPI
	Euskaltegia	12.787,76 + KPI
	Etiket plaza egitasmoa	2.652,34 + KPI
	Oinarriak	643,76 + KPI
	Kontseilua	563,35 + KPI
IKERKETA		
	Nafarroako Ahozko Ondarearen Artxibategia Malerrekan	
BERTZE		
	Euskara zerbitzuen arteko literatur lehiaketa	1.000,00
OROTARA		46.184,51

KARRIKA NEURKETA

Euskararen erabilera Malerrekan 2006

Karrika neurketa eremu publikoan (karrikan) egiten den euskararen erabilerearen behaketa zuzena da. Karrika neurketak momentu eta leku zehatz batean zein hizkuntza erabiltzen den, euskara edo erdara, erakusten digu.

Honekin erran nahi da balio erlatiboa dutela. Datu hauen balioa, urtez urteko joera zein den ikus-tea da. Gainera Malerrekako herriak hain txikiak izanik erran beharrekoa da herri gehienetan lortzen ditugun emaitzak ez direla estatistikoki adierazgarriak. Horrela Malerrekan soilik Doneztebe eta Sunbillako emaitzak izanen ziren estatistikoki baliagarriak, beraz, laupabortz urtetik behin Malerrekako gainontzeko herrietan egiten diren neurketen balioa erlatibizatzea komeni da.


Honen bidez eskuratu-tako datuek ez digute erakusten nola solasten diren Malerrekako biztanleak, baizik eta karrikan, egun eta ordu zehatz batzuetan zer entzun dugun. Erabateko erabilera neurtzeko etxekoa eta bertze leku publiko itxietakoa (tabernak, eskolak...) neurtu beharko genituzke.

Hondarrean erran behar da ere, Euskara Batzordeak orain arte egindako lana ebaluatzeko tresna arras egokia di-

2006KO KALE NEURKETAK % MALERREKA	HAURRAK		GAZTEAK		HELDUAK		ZAHARRAK		GUZTIAK	
	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G
BEINTZA-LABAIEN	94	6	94,5	5,5	94	6	97,5	2,5	94,7	5,3
DONAMARIA	84,3	15,7	82,5	17,5	65,3	34,7	100	0	79	21
DONEZTEBE	58,5	41,5	68,75	31,25	36,75	63,25	56,8	43,2	48,65	51,35
ERATSUN	86,4	13,6	88,2	11,8	77,6	22,4	100	0	87,3	12,7
EZKURRA	71,4	28,6	70	30	66,5	23,5	91,7	8,3	77,8	22,2
ITUREN	100	0	94,75	5,25	67,65	32,35	96,7	3,3	85,55	14,45
LEGASA	48	52	78,6	21,4	47	53	83,9	16,1	58,8	41,2
NARBARTE	88,9	11,1	100	0	23	77	40	60	64,3	35,7
OITZ	100	0	100	0	100	0	100	0	100	0
SALDIAS	90	10	100	0	88,4	11,6	89,5	10,5	91,3	8,7
SUNBILLA	86	14	89	11	71,8	28,2	60	40	78,5	21,5
URROTZ	100	0	0	100	36,4	63,6	100	0	69,4	30,6
ZUBIETA	97	3	16,7	83,3	86,5	13,5	86,7	13,3	87,25	12,75
GUZTIRA	76,4	23,6	82,5	17,5	60,6	39,4	81,8	19,2	70,8	29,2

EGIN DIREN AZKEN NEURKETEN KONPARAZIOA: (DATUEK EUSKARAZKO SOLASALDIAK ERAKUSTEN DITUZTE)

URTEA	HAURRAK	GAZTEAK	HELDUAK	ZAHARRAK	GUZTIAK
1996	%83	%43	%57	%86	%62
1998	%79	%54	%61	%75	%65
2001	%77,5	%59,9	%55,7	%73,7	%64,1
2006	%76,4	%82,5	%60,6	%81,8	%70,8



rela. Neurketa hauek, gure lana den normalizazio prozesuaren termometroa dira, erabilera baita hizkuntza baten osasunaren

erakusle hoberena.

15 pertsona aritu dira neurketa egiten eta orotara jaso den elkarrizketa kopurua 2.849 izan da.

Goitiko koadroetan ikusten dira emaitzak eta urtez urte egin diren neurketen konparazioa.

Neurketek erakusten diguten joera

GAZTEAK DIRA ORAIN EUSKARAZ GEHIEN ARITZEN DIRENAK

1996, 1998, 2001 eta 2006ko karrika neurketen emaitzak aztertzen baditugu, bi tendentzia desberdin ikusten ditugu:


- Alde batetik 1996, 1998 eta 2001ean neurketak "V" eskema erakusten dute, honek zer erran nahi du:

- 1.- Haurrek nagusiki euskaraz egitea.
- 2.- Gazteen erabilera ttikia izatea.
- 3.- Helduen erabilera ttikiena izatea.
- 4.- Zaharren erabilera handiena izatea.

2006ko azterketaren arabera, gazteak dira euskaraz gehien aritzen direnak

2006koa ordea, eskema desberdina erakusten digu, haur eta zaharren erabilera handia bada ere, gazteek dira euskara gehien erabiltzen dutenak. Datu hau guztiz berria da, bertze urte batzuetan gazteak izan baitira euskara gutxien erabili dutenak Oraingo honetan gazteak izan dira Malerrekan euskara gehien erabili dutenak. Bai Malerrekan orokorrean eta bai herri nagusietan, Donezteben eta Sunbillan. Dena den, 2006ko emaitzak hagitz positiboak direla erraten ahal dugu, haurren erabilera pittin bat jaitsi bada ere gainontzeko adin mult-

URTEAK	HAURRAK	GAZTEAK	HELDUAK	ZAHARRAK
1996	83	43	57	86
1998	79	54	61	75
2001	77,5	59,9	55,7	73,7
2006	76,4	82,5	60,6	81,8



zoetan goiti egin du, arestian erran bezala batez ere gazteetan.

Ondoko koadroan emaitzak irudi grafiko baten bidez ikusten dira.

Normalizatu gabeko hizkuntza

Eskema honek euskara normalizatu gabeko hizkuntza dela erakusten digu. Nortzuk dira euskara gehien erabiltzen dutenak: haurrak (0-14 urte), gazteak (15-24) eta zaharrak (64 urtetik goiti).

Egungo gizartean erreferentzia diren helduak (25-64 urte bitartekoak) euskara gutxien erabiltzen dutenak dira,

baina, aldi berean adin talde hau da gizartean indar handiena duena. Helduak baitira orokorrean ekonomian, lanean, komertzioan, politikan e. a. aritzen direnak. Bertzalde, gurasoak izanik beraiei dagokie hizkuntza transmisioa.

Bada joera edo tendentzia bat neurketa guztietan agertzen dena, helduen erabilera tasa egonkorra izatea, hau da ia aldaketarik ez duela izan hondarreko hiru neurkete-tan.

Bertze zenbait ondorio

- Haurren erabilera gero eta ttikiagoa da, datu hau arras kezagarria da, herri aunitzetan gertatzen baita eta Donezteben gehienbat.

- Gazteen erabilera goiti doa, hau belaunaldien arteko ordezkapenaren ondorio da, lehengo haur euskaldunak orain gazteak bilakatu baitira.

- Heldu eta zaharren artean erabilera beheiti doa, arestian erran bezala bezala belaunaldien ordezkapenaren ondorio da, orain arte euskara gutxien erabili duten helduak zahartzen doaz eta.

Udaletxean ere euskaraz!

EUSKARAZ EGIN! ZEUREAZ EGIN!

Malerrekako Euskara Zerbitzuak Udaletxean ere euskaraz! izeneko kanpaina martxan paratu du aurten ere. Kanpaina honen helburua herritarrek Herriko Etxean egin beharreko gestioak, paperak, eskaerak e.a. euskaraz egitea da. Dagoeneko 20 urte joan dira euskara hizkuntza ofiziala dela Nafarroako zati honetan, gaur egun bai Doneztebeko, bai

Sunbillako Herriko Etxean herritarrak euskaraz hartzeko gai diren langileak daude, gure eskubidea den hau gauzatzeko liburuxkak partitzen ditugu Doneztebe eta Sunbillako etxe guztietan. Liburuxka honetan administrazioko oinarriko hiztegia aurkituko duzue. Beraz, hemendik aitzin aitzakiarik ez, HERRIKO ETXEAN EUSKARAZ!.



IV

2007ko udalekuak

Aurten ere euskara zerbitzuak Malerrekako haur eta gazteendako euskarazko udalekuak antolatuko ditu. Honako dira bertzeak bertze udaleku hauen helburuak: euskaraz ongi pasatzeko aukerak eskaini, bertze euskalkiak ezagutu, euskararen erabilera areagotu, haur eta gazteen arteko harremanak bulkatu eta beren garapen pertsonala landu.

Hiru dira eskainiko diren aukerak:

***UDALEKU PIRATA:**

- Adinak: Lehen hezkuntzako 1.-3.
- Tokia: Pasai Donibane (Gipuzkoa)
- Prezioa: 114 euro
- Ekitaldiak: Jolas tailerrak, ludoteka, txangoa txalupaz, hondartza eta igerilekua.



***NATURA UDALEKUA:**

- Adinak: Lehen hezkuntzako 4.-6.
- Tokia: Alkiza (Gipuzkoa)
- Prezioa: 114 euro
- Ekitaldiak: Jolasak, Herri Kirolak, mendi ibilaldiak, hondartza eta piragua Txingudin.

***KOSTALDEKO UDALEKUA**

- Adinak: Lehen hezkuntzako 6., DBH 1. eta 2.
- Tokia: Pasai Donibane (Gipuzkoa)

- Prezioa: 120 euro

- Ekitaldiak: Bela, surfa, txangoa txalupaz, hondartza, irrati eta sukaldaritza tailerrak eta senderismoa.

Uda oraindik urrun egon arren, segidan izen-emateko datak jakinarazten dizkizuegu:

Apirilak 16, astelehena, 17 asteartea eta 18, asteazkena.

Dena den, guzti honen berri eman ez foiletoak partituko dira Malerrekako eskola guztietan.



BERTSOLARITZA

Otsailaren 24an abiatuko da Nafarroako txapelketa

Finala Elizondon izanen da martxoaren 24an



ttiipi-ttapa

Inauterietako hotsak bukatzearekin batera hasiko da Nafarroako Bertsolari Txapelketa 07, otsailaren 24an. Batzuk brometarako gogoia atzendua izanen dute ordurako. Hilabeteko ibilbidea egin ondotik zenduko da martxoaren 24an, Elizondon. Aurtengoan 36. edizioa beteko du Nafarroako txapelketa.

Etxarri Aranazko Kultur Etxean hilaren 24an 18:00etan hasiko den lehen finalurre honetan Iñigo Olaetxea, Jon Barberena, Bittor Elizagoien, Julio Soto, Oier Lakuntza eta sailkapen fasetik datorren bertsolari bat ariko dira.

Bigarren finalurrea Goizuetako udaletxean egingen da, 18:00etan. Julen Zelaieta, Joxe Juan Zubieta «Etxabe», Diego Riaño, Iñigo Ibarra, Jon Elizetxe eta sailkapen saioko bertsolari bat ariko dira.

Martxoaren 10ean, Berriozarko Musika Eskolan 18:00etatik aitzinera egingen den finalurrean Xabier Silveira, Erika Lagoma, Migel Mari Elozege «Luze», Oskar Estanga eta sailkapen fasetik datozen bi bertsolari ariko dira.

Finalurretatik 8 bertsolari sailkatuko dira finalerako. Finalurre bakoitzeko lehena eta gainerako bortzak puntuen arabera. Final nagusia Elizondoko Lur dantza lekuan izanen da, martxoaren 24an, 17:30etik aitzinera.

AUTO MAILEGU M A L G U A



Murritzu %20 baino gehiago hileko kuotetan



edo eraman %30 gehiagoraino lehengo kuota berekin



Auto Mailegu Malgu berriari esker zure ibilgailu berria **ohiko mailegu baten aldean abantaila gehiagorekin** estreinatzeko modua izango duzu, gehien komeni zaizun aukera eginuz:

- Pentsatzen zenuen autoa erosiz, **hileko kuotan %20 baino gehiagoko aurrezkoa eginuz.**
- Goi-mailako gamako auto bat aukeratuz, **%30 gehiagorainoko prezioan baina lehengo kuota berak ordainduz.**

Eta hori guztia, gehien komeni zaizun ordainketa-eguna aukeratzeko moduarekin.

www.ruralvia.com



**NAFARROAKO
RURAL KUTXA**

Egunetik egunera hobeto egitea dugu helburu

GOIZUETA

Urtetik urtera ederragoak diren inoteak igandean hasiko dira

Karrozen desfilea asteartean izanen da aurten ere

Esteban AROTZENA

Beste batzuen oihartzun mediatikorik ez baldin badute ere, beharbada karnabalen egun ofizialetan ospatzeak «konpetentzia» handitzen duelako, beti izan dira ederrak eta ikusgarriak herriko inoteak. Azken urteotan gainera, areagotu egin da edertasuna, karnabalen sinbolo garrantzitsuenetakoen faktore bat, jendea mozorrotzea, gero eta indar handiagoa hartzen ari baita.

Herritar guzietan harrituta utzi zituen iazko Astearte-inotean plazaratutako mozorroen eta karrozen kalitateak eta kantitateak. Horren ondorioz, berehala sortu zen desfile hori beste

egunen batera aldatzearen gomenentziari buruzko eztabaida. Gazteek ekin zioten gaiari orain dela hilabete terdi interesatu guztiak bilerara deituz, baita luze eta zabal eztabaidatu ere. Bileretan bota ziren aldaketaren aldeko arrazoi indartsuak: zigidantzaren protagonismoa mantentzea, mozorroen taldekoaren denbora falta zigidantzaren ondoren karrozan ateratzeko, astearteaz gain karrozen aitzakian inotetako beste egun bat indartzeko aukera, etabar... Pisuko arrazoiak dudarik gabe, baina ez guztiak komentatzeko hainakoak. Jende askok karrozak asteartean mantentzearen alde

mintzatu zen, eta horren aurrean bere horretan uztea erabaki zuten aldakuntzaren aldekoek ere. Hori bai, zigidantzaren irteera ordu erdi aurreratu da, 16:30era alegia.

Orduetegi aldaketa hauxe da aipagarriena. Gainerakoan ohitura zaharrei eusten zaie eta urterokoa eginen da. Plazako musikari dago-kionean esan, igandean Jaionae Olazabal eta Jon Gurrutxagak jokodutela, astelehenean Legoyak eta asteartean TZ taldeak. Inotetako egunik jendetsuena bihurtu den «kontutako egunean», hilaren 24an, Iruñeko Igandea txaranga ibiliko da herrian ilunabarrean eta gauean.



ARGAZKIA: ALAITZ ESKUDERO

Giro ederra kantu afarian
Gartxot eta Edortaz gain afaltiareren parte hartzea ere oso aberatsa izan zen otsailaren 2ko kantu afarian. Argazkian, Alaitz eta Mainer.



ARGAZKIA: MAITANE APEZETXEA

Mozorroek merezi eta beti izan duen protagonismoa eman nahi diote zigidantzari. Horregatik, ordu erdi aurreratu dute irteera.

ARESO

Giro ederrean ospatu zituzten inauteriak herriko gazteek

Industrialdea handitzeko lanak hastear daude

Juana Mari SAIZAR

Inauteriak ere bukatu dira eta nahiz eta ez den jende gehiegirik ibili herriko gazteek ospatu dituzte. Larunbat goizen ongi gosalduta eta gero eskean ibili ziren baserrietan, bazkaldu ondoren musika egon zen soziedadean Basajaunen eskutik, eta herri afariaren ostean ere beren saioa egin zuen talde-

ak. Igande goizean herritik egin zuten buelta eskean, eta azken une-ko ezustearen ondoren, azkenean Itxaso Oñsalo eta Alaitz Olano herriko gazteak izan ziren musika jartzen. Eskea bukatuta bazkaria izan zuten gazteek soziedadean eta arratsaldean berriro ere Itxaso eta Alaitzen musikarekin alaitu zen giroa.

Eluseder industrialdea

Eluseder industrialdea handitzeko lanak hastear daude. Obrak 14 hilabete iraungo dute eta Sukia enpresa gipuzkoarrak egingo ditu. Alkateak dioenez, «berrez guk lehenago hasi nahi genuen baino nahiago izan dugu paper guztiak esku artean izan arte itxaron». Na-



ARGAZKIA: UXUE GOIKOETXEA

Gazteek elurretan egin zuten inauterietako eskea.

farroako Gobernuaren baimena aste honetan jasoko dutela ziurtatu du alkateak.

Gasaren tuboa

Herriko saneamentu obretan azken zulaketa lanak egiten ari dira, gasaren tuboak sartzeko

ari baitira. Hau egin ondoren, zola berritzeko lanak hasiko dira. Elurte honen ondorioz izugarrizko lokatza sortu da herriko kaleetan eta oso zaila izan da nahiz oinez eta nahiz kotxeetan ibiltzea, bideko zuloen ondorioz.

LEITZA

Bukatu dira aurtengo ihotek

Giro eta umore ederra hedatu da herriko kale eta auzoetan

Joseba URKIOLA

Herri gehienetan datozen egunetan hasiko diren arren, gurean bukatu dira aurtengo ihotek. Urte bete luzea itxaron ondoren, lau egun koloretsu eta zorionsuren ostean, berriro ere zain geratzea beste aukerarik ez dugu.

Aurtengoan ere ugarriak izan dira, herriko kaleetan ikuskatu ahal izan diren mozerro eta atxaurek. Batzuek originaltasunaren aldeko apustu sendoa egin zuten. Beste batzuek berri, armairuko ateak zabaldu eta aurreko urtetan eginiko lan esker-ga berriro ere plazaratzeko erabakia hartu zuten.

Denak izan dira lau egun berezi horietako protagonistak eta denak izan dira aintzat hartze-koak. Leitzaldera hurbildu ziren kanpotar askorentzako, baita mozerrotu ez ziren herritarrentzat ere, une eder eta gogoangarri batzuen sortzaile izan baitziren.

Egin Kantu! Telebistako saioa Leitzan grabatuko dute

Egin Kantu! Nerea

Alias anoetarrak aurkezten duen haurrentzako telebista saioa, Leitzan grabatuko dute. Euskal Telebistako kantu-lehiaketa honetan nork parte hartuko duen zehazteko, arduradunek otsailaren 12an hautapropa batzuk egin zituzten. Saioaren grabaketa martxoaren 1ean egingen da.

Zine eskaintzak aurrera darrai

Inauterietako hutsartearen ostean, Leitzako zinemako emaldiek bizirik diraute. Arduradunek hiru film hautatu dituzte, otsailan eskaintzeko. Otsailko lehen asteburuan, "Infiltrados" luzemetraia ezaguna egon zen ikusgai. Pasa den asteburuan berri, aurtengo Oscar sari ezagunetarako nahikoa protagonismo izan duen "Pequeña Miss Sunshine" filma ikusteko parada eduki zuten herritarrek.

Heldu den asteburuan eta otsailerako egituratutako zikloari amaiera emanez, "Un franco. 14 pesetas" Carlos Iglesias zuzendariaren luzemetraia pantaillaratu dute. Gogo-



ARGAZKIAK: JOSEBA URKIOLA

Zezen plaza dotorea eta mairuak, aurtengo ihotetan ikusi ahal izan ditugun atxaure ikusgarrien seinale.

ratu emaldirak betiko ordutegi eta eguneari eskaintzen direla: ostialetan 22:30ean eta igandetan 19:30ean.

Hazizurriaren aurkako txertoa hartzeko deialdia

2007. urtean barne-raztearekin batera, Nafarroako hiriburuan eta inguruetan hazizurria

edo "paperak" bezala izendatutako gaixotasun kutsakorrek presentzia handi xamarra izan du. Honek ekar ditzaketen eragin kaltegarriak ekidite aldera, Nafarroako Gobernuak Osasun Sailak, bereziki 1986, 1987 eta 1988. urtean jaiotako gazteei aipatutako gaixotasunaren aurkako txertoa hartzeko oharra

plazaratu du.

Aipatu, Leitzako Osasun Etxetik bidali dituztela eskutitzak eta bertan argi jartzen duela zein diren gauzatu beharreko pausuak. Informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, Nafarroako Gobernuak web orrialdea eta kasu hauetarako ezarria da goen telefonoa ere eskuragarri dauzka, nahi

luis
cestau
baraibar

arkitekto
teknikoa

leitza
607204485

lucésba
@
msn.com

Ark_b

arkitektura bulegoa

Celia Lana Ronz
Huarte Gotzai 7 - 31860 Leitza
645008478 tel

Eraikuntza
Hirigintza
Udal-aholkularitza

BAZTAN

Alkaterik gabe segitzen dute oraindik Iruritan eta Elbeten

Elbeten igandean egitekoa zuten batzarra

Maite OTEIZA

Pasa den Eguberrietan, herrietako alkateak aukeratzeko batzarretan, bi herri gelditu ziren alkaterik gabe, Elbete eta Irurita.

Bertako alkateek bi batzarre antolatu ondotik eta, inor ez zela postu horretarako aurkeztu ikusirik, Baztango Batzar Orokorreko (junta general) presidentea den Baztango alkateak, Virginia Alemanek, iruritarrei batzar berri batera deitu zien, otsailaren 4an, Damaso Zabala Gizarte Bilgunean. Balleko alkatearekin batera, Santi Aldako alkateordea eta azken legealdietan Irurita alkate izen den Maribel San Jose izan ziren mahaiburuan.

30 bat pertsona hurbildu ziren eta Ordenantzek agintzen duten bezala, norbaitek herriko alkatea izan nahi zuten hiru aldiz galdetu ondotik, hilabete bateko epea eman da, hurrengo batzarre batera-



ARGAZKIA: MAITE OTEIZA

Santa Ageda bezperako kantuak Almandozen
Almandozko eskolako haurrek (3 eta 12 urte bitartekoak) Santa Ageda ospatu zuten, baserritarraz jantziak eta beren makilekin herri barnean buelta eman zuten. Herria beren kantuz alaitu ondotik, bildutako puxkekin eskolan merendue egin zuten.

ko, inork ez bait zuen bere burua aurkeztu. Santiago Aldakoren erranetan, «*penagarria da honelako egoera batera ailegatzea. Herrietako alkateak lehen ziztuzten konpetenziak berreskuratze*

nantzak aldatzeko asmoa daukagula jakinaz, eta Udaletik laguntza emateko prest gaude la, baina alferrik izan da».

Otsailaren 11n, berriz, Elbeten konboka-

turik zegoen batzarra herriko ostatuan.

Baztanen arazo hau sortu da, gaur egungo herrietako alkate jura doek ez dutelako inongo konpetentziarik, herria eta udaletxe arteko bitartekaria bihurtu de-

FLASH

Lekarozko frontoia moldatzen

Azken urteotan, Udalak herrietako frontoien mantenimenduari ekin dio. Aunitzek, egin zirenetik, ez zekiten zer ziren lan horiek eta agerie gelditzen ari zen: Elbete, Gartzain (gan den San Martin egunean inauguratua), Arizkun (haize bolada batek teitlatu osoa eraman zuena), Berroeta, Zigakoa konpondu ondotik, orai Lekarozko frontoiaren txanda da eta Erratzukoa ere hor dago espe-roan. Berritze lanak herriko Elizondo anaien enpresak egingen ditu 83.568,92 eurotan.

Orakundek inauteriei pasoa emanen die

Nahiz eta Inaute garaia, Erregeen asteburuan, Orabidean hasi zen, egun seinalatuenak hurbiltzen ari dira. Aitzinetik haurrek bere eguna pasatu behar dute, Orakunde, Egungo Tunttun (Amair, Azpilkueta) edo Oilar dantza (Erratzun) eguna. Goiztiarrek zigatarrak izanen dira (otsailak 9), Amair (13), Erratzu eta Lekaroz (14), Arizkun, Elbete, Elizondo, Gartzain, Irurita, Arraioz, Oronoz, Almandoz eta Berroeta (15), Azpilkueta (16) eta Aniz (17).

Maderas GOMEN
Tel: 948 580 645
Zaldubia Industrialdea
IRURITA

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrek: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroa: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

ERRETEGIA ORDOKI LIKOREAK
Perrilan egindako haragi eta arrainak
Tel: 948 453 410 Fax: 948 453 378 - ARIZKUN

BAZTAN

Den-dena zaharberritu ondotik, otsailaren lehenean inauguratu zuten Zigako eskola

Lanak 242.740 euroko gastua izan dute, horietatik 157.781 Nafarroako Gobernuak emanak

ttipi-ttapa

Luis Campoy Zueco Nafarroako Gobernuko Hezkuntza sailburuak otsailaren 1ean inauguratu zuen Zigako eskola berria. Eraberritze-lanak guztira 242.740 euroko gastua izan dute, eta horietatik 157.781 Nafarroako Gobernuak jarri ditu, gainerakoa (84.959 euro) Udalak ordaindu du. Inaugurazio ekitaldian, bertzeak bertze, Virginia Aleman Baztango alkatea, Fermin Villanueva Eskola eta Lanbide Ikasketen zuzendari nagusia, eta Balleko hainbat zinegotzi izan ziren.

Zigako herri-eskolan Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza ematen dira, eta eskola dagoen eraikina XX.mendearen hasieran eraikitakoa



Zigako eskola eraberritua otsailaren 1ean inauguratu zuten. Ekitaldian Nafarroako Gobernuko eta Balleko Udaleko ordezkariak bildu ziren.

ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

zen. Zaharkitua zegoelako bere osotasunean berregituratu behar izan dute. Egituraren partetak eta zimenduak barrik mantendu dituzte. Eskolaren eraberrit-

ze hau ezinbertzekoa zen, izan ere, eraikina zaharkitua izatearen ondorioz batez ere, eskolaren eraikinak hainbat gabezia eta hutsune zituen.

LANAK BUKATU ARTE, ESKOLAK HERRIKO PARROKIAN

Eraberritze lanak hiru fasetan egin dira, 2005eko otsailaren 26an hasi ziren eta ikas-

turte honen hasieran akitu. Lanek iraun duten bitartean, hasieran Elizondoko eskola publikoan eta gero Zigako parrokan eman dituzte eskolak. Eskolak beheko solairua eta bertze bi pisu ditu eta pilotalekua ere badu ondoan.

Zigako herri-eskola Balleko bertze eskolekin elkarlanean ibiltzen da, Azpilkueta, Arizkun, Almandoz, Amairu, Arraioz, Erratzu, Gartzaín, Irurita eta Oronoz-Mugairikoekin batera. Zigaren kasuan, eskolak 3tik 12 urtera bitarteko hamabortz-hogei ikasle inguru izaten ditu urtean. Azken ikasturte honetan, hogei ikasle matrikulatu dira guztira, 7 Haur Hezkuntzan eta 13 Lehen Hezkuntzan.

Eskisaroi
Jaimen Urrutia
Tfnoa: 948 580 013
ELIZONDO

Pierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Iturriotz ezkoa · Tfnoa: 948 592 043
ORONÓZ · MUGAIRI

POTTEKI
ZIKLO JARDUEKIN BERRIA EGAIKIDETEA!
Poteskerriak, 7 - 1. lehen HEZKUNTZA (Nafarroa)
Tfno: 948 790 608
pottoki@naraun
Poteskerriak lekuak: 9.30 - 13.30
16.30 - 20.00
BILKETA
TOKIEN
KONTAKU
LEHENDAKO JOZKALAN
ESPEDIENTE ETIA LOZER-TRAFIKO
HARRI-ABILE ALDIA
OFFICE
JARDUEKIN BERRIA

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL
AGENTZIA

Santiago 155
Tfnoa: Fax: 948 584 804
584 804
584 804

- n Zurich Aseguruak**
 - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- n Lan aholkularitza**
 - Nomina eta Aseguru Sozialak
- n Aholkularitza fiskala**
 - Errenta Deklarazioak, IVA...
- n Inmobiliaria**
 - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- n Gestoria**
 - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

SENPERE

Otsanzko Maria Madalena kapera xahar berritzen ari dira

Otsailaren 20an jakinen da nolako zigorra emanen zaien Euskal Herriko laborantza ganbera lagundu duten herrieri

Franck DOLOSOR
Argitxu FADON

«Otsanzko Maria Madalena» kaperaren lehen aipamena, «Hôpital du Paradis» izenarekin Iruñeko artxi-boetan 1249 urtean aurkitzen da. Garai horietan, Jondoni Jakobe bidean, toki hau trikaldi edo geldialdi gune bat bezala erabilia zen. Baina artxi-boetan ez da jakiten nor izan zen erakuntza hunen bultzazale arduraduna. Zuraide, Senpere eta Uztaritzeko mugan kokatzen da kapera. Egitura hau ohargarria da bere ximpletasunari esker. Hemezortzi metro luze eta zazpi metro zabal. Eliza barnean ikusten ahal dira lurretik bi metro gainean bi lehio uztaituak abantsu metro bateko luze. Harresiak eraikiak ditu inguru hurbilean hartu harriekin. Aspal-diko sinesmenetan erraten da, basa-eliza izan

zela, giristinoen Jainkoaren ohorez, Lapurdin, eraikia izan zen lehen tenplua.

«Territoire d'Otsantz (edo Otsantz)» deituraren erabilia izan zen Frantziako Iraultza arte. Lurralde hori oihañez eta haritez estalia zen, kasik ezin zilatuzko leku galdu batean. Pentsatzen ahal da, toki hortan zirela elgarrekin gerizatu, 4-7garren mendetako Asiaticoinbasio garaian. Lapurdiko lehen girixtinoak, bazter hartzaileetatik urrun, beren erlisio-neari jarraitzeko eta beren hilak ehortzeko. Leon Sainduak, Espainiatik itzultzean hor meza bat eman omen zuen. Frantzes Iraultza aitzin Uztaritze, Senpere eta Zuraideko parropiako jendeak Otsanzko Maria Madalenaren kaperan biltzen ziren euria edota denbora ederra eskatzeko.

Haristoy apezak 1883 urtean argitaratu zuen liburuan aipatzen du kaperan bi tailu bazirela Maria Madalena saindua errepresentatzen zituztenak. Bat Senperereko elizaren erre-taulan ezarri dago eta bertzea pentsatzen da Amotzeko kaperan den tailua dela. 1789ko Frantses Iraultza ondoren, ondasun nazional gisa saldua izan zen kapera. Iduriz bere erosleak, beste eraikuntza zerbaitarako, teilatu eta hormaren zati handiak barreatu zituen

Gaur egun kaperaren antolatze lanak DRAC Gai kulturalen lurraldeko zuzendaritzaren eskuetan dago.

Euskal Herriko Laborantza Ganbera laguntzeagatik epaitegian

Herriko laborariek Paueko laborantza ganbera-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Otsanzko Maria Madalena kapera Senpere, Zuraide eta Uztaritzeko mugan dago. Orain, zaharberitze lanean ari dira.

ko ordezkariak izendatu dituzte berriki. FDSEA aise nagusitu da Pirineo Atlantikoetan baina ELBk dio lehen indarra dela bere lan eremuan, hau da, Ipar Euskal Herriko hiru lurraldeetan. Alkien banaketan ez da aldaketarik, FDSEarentzat izanen dira gehienak eta ELBk bi baizik ez ditu izanen. Bertzalde, ELBk duela

bi urte sortu zuen Laborantza Ganbera alternatiboari diru laguntza eman dizkieten herrietako hautetsiak Paueko auzitegi administratiboratu dituzte gan den astean. 26 auzapez epaileen aitzinetik pasatu dira diru laguntzak legez kanpokoak direla koan. Epaia otsailaren 20an jakinen da.

ola
SAGARDOTEGIA

- * 250 lagun eserita
- * Klimatizatua

102 Meaka auzoa
20304 IRUN
Tel.: 943 623 130

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESACA: Bititria, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxo: 948 637 404
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxo: 948 133 713

Pitti
eskabazleak

Tel: 616 513 491

Mendakoa etxea, 34 - ZUBIETA

URDAZUBI

Pentsatu baino gehiago luzatuko dira frontoi berriko lanak

Andres Diharassarry herriko alkatea lanetik erretiratu da

Aitor eta Fani

Herriko frontoi berriko obrak aitzinatzen ari dira, argazkian ikus daitekeen bezala, baina, hala ere, hasieran pentsatua baino luzeago jonen direla aipatu digute Herriko Etxetik. Ea laster ikusten dugun partidu ederren bat frontoi berrian.

Uraren arazoak konpontzeko kunetak berrituko dira

Herri sarreran urarekin

arazoak zeudela ikusita, bide bazterrak berritzea erabaki zen. Hartara, kuneta berri hauekin ura hobeki kanalizatuko dela uste da, lehen sortzen ziren okerrak zuzenduz.

Alkatea erretiratu da, 60 urterekin

Andres Diharassarry alkatea lanetik erretiratu egin da 60 urterekin. Hendaiaiko Zokoa enpresan lan egiten zuen, birziklapen sailean.



ARGAZKIAK: AITOR ETA FANI

Goiko argazkian ikusten denez, aitzinera doaz frontoiko lanak, baina hala ere, uste baino gehiago luzatuko dira. Behekoan, frontoi berriaren ondoan egongen diren komunak ageri dira.

egoi bardot obregozo arkitektoa
679649789 elizondo - braulio iriarte 33, 1ºD - 31700
948250371 Iruña - kabeko monastegia 62, 4ºC - 31011

txokoberri
Aluminioan espezializatuak
• Aroztegi Metalikoa (leihoak, ateak, barandak....)
• Parket
Eneko eta Alfredo / Donamaria / Nafarroa Tel: 618 881 924

BURKAITZEA
• ostatu
• erretegia
Zugarramurdi bidea, 3 km
948 599 280 - URDAZUBI

ZOANSA
SEAT
VW
HYUNDAI
AUDI
MARKA GUZIZEN KONPONKETA
Banarta, 2 - Alkaiaga industrialdea
LESAKA (sarrera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

MARTIKO
Ahatekietan adituak eta arituak
Martikorekin zu zeu sukaldari.
Martiko Poi Zelaia, s/n.
31780 Biera, Nafarroa.
Tel: 948 625016
Fax: 948 625036
www.martiko.com

ZUGARRAMURDI

Goiburuko depositoa hustu eta urik gabe gelditu zen herria urtarrilaren 29an

Loribenta aldera doaien sarean harrapatu zuten makurra

ttipi-ttapa

Urarekin komediak ibili ditugu aitzineko egun hoietan. Urtarrilaren 29ko goizean etxe-etan urik gabe ernatu ziren. Zer ote zen-eta, Goiburuko ur-depositoa hutsik zegoela ikusiz. Argi zen nonbait ere ixuri fuerte bat bazela eta Loribenta aldera doaien sareak zuela galera harrapatu zuten, ura purustaka belaitik beheiti gaki baitzen. Herrian eguerdirako ura ematea lortu zen (iturri ttiki guz-

tiak irekiz), baina Loribentan hiru egun urik gabe egon behar izan zuten.

Inauteriak prestatzen

Bertze urte batez inauteriak prestatzen gabilta. Otsailaren 17-18ko asteburuan ospatuko dira eta aldaketa ttiki bat emanen da igandean: egun huntan gazteekin batera haurrak eta gurasoak ere eskean ibiltzen dira herrian, baina ikusirik azken ur-



UTZITAKO ARGAZKIA

Aurten ere umore ederra izanen da mozorroen artean.

teotan nekez ibiltzen direla ezin ailegatu etxe guztietara, aurtengoz pentsatu da musika, mozorroak eta alaitasuna karriketara mugatzea, eta bakarrik sartuko direla aitzinetik espreski hala adierazi duten etxeetan. Eskolen inauteriko ospakizuna ortziraletan egingen da. Aur-

ten Zugarramurdin egitea tokatzen da (urtero herriz txandatzu gaten baita) eta hor dabilta haurrak beren pailaso mozorroak prestatzen.

Elurrarekin batera, urteko lehen haurra sortu da herrian
Negu honetako hotzak

elurra ekartzeaz gain, bertze zerbait ere ekarri du gure herrira: haur sortu berri bat. Elurra hasi zuen gau berean Ganixenean Garazi sortu zen. Emaginak arazoak izan zituen Zugarramurdira ailegatzeko, baina afera ongi burutu zen. Zorionak deneri.



Jose Luis

ARIZALETA AZKARRAGA

Iruñean hil zen 2007ko otsailaren 2an, 83 urte zituela.

Behar zenean haunditzen zinen,
ta behar zenean umil.
Askatasuna ematen zenuen,
beharra genuenean hurbil.
Oroitzapenean izpiritua,
geroztik hemen dabil.
Nahiz mundutikan joan zeraden,



Xanti ITURBIDE ALMANDOZ

1951ko irailaren 24an
2004ko otsailaren 23an (III. URTEURRENA)



Mikel ITURBIDE MATXIKOTE

1979ko maiatzaren 16an
2007ko ilbeltzaren 24an

Une ederrak pasa ditugu denok elkarren ondoan zenbat bilkura ta zenbat besta denak armoni onean hortaz izanen zarete beti bihotzez gure gogoan Orain atsedean har ezazue elkarren altzo beroan

XANTI ETA MIKELEN FAMILIA.
Igantzi, 2007ko otsaila

Ez da handiagoa gehien hartzen duena, hutsik handiena uzten duena baizik. Eskerrak aunitz egun latz hauetan gurekin egon zareten guzoi.



EZKONTZAK

Ez da datu berrik.



SORTZEAK

Ninbe Lizardi Artola, Berakoa, urtarrilaren 21an.
Mari Oiarzabal Lizardi, Doneztebekoa, urtarrilaren 22an.
Oihana Yaritza Males Fuezez, Elizondokoa, urtarrilaren 19an.
Naxara Aleman Irisarri, Elizondokoa, urtarrilaren 22an.
Oier Prim Agerrebere, Zigakoa, urtarrilaren 22an.
Jabier Etxaide Lopez, Elizondokoa, urtarrilaren 25ean.
Ugaitz Garaikoetxea Arretxea, Elizondokoa, urtarrilaren 30ean.
Ioritz Dorronsoro Iparragirre, Leitzakoa, urtarrilaren 30ean.
Garazi Belda Xurio, Zugarramurdikoa, urtarrilaren 24an.



HERIOTZAK

Antonio Irazoki Arrieta, Sunbillakoa, urtarrilaren 29an, 81 urte.
Juan Bautista Irigoien Jorajuria, Arantzakoa, otsailaren 2an, 83 urte.
Carmen Zubieta Lujanbio, Goizuetakoa, abenduaren 17an, 80 urte.
Luzia Eskudero Zubiri, Goizuetakoa, urtarrilaren 25ean, 66 urte.
Terexa Loperena Urtxipia, Zubietakoa, otsailaren 1ean, 77 urte.
Mikel Iturbide Matxikote, Igantzakoa, urtarrilaren 24an, 27 urte.
Joxe Fermin Madariaga Matxikote, Lesakakoa, urtarrilaren 29an, 83 urte.
Antonio Irazoki Arrieta, Sunbillakoa, urtarrilaren 30ean, 81 urte.
Carlos Txoperena Etxeberria, Lesakakoa, urtarrilaren 30ean, 88 urte.
Maria Vitoria Mutuberria, Elizondon, urtarrilaren 31n, 98 urte.
Agustin Iribarren Indart, Erratzukoa, otsailaren 1ean, 94 urte.
Jose Luis Arizaleta Azkarraga, Lekarozkoa, otsailaren 2an, 83 urte.
Mari Jose Telletxea Mariezkurrena, Ezkurrakoa, otsailaren 3an, 31 urte.
Maria Isabel Perugorria Danboriena, Etxalarkoa, otsailaren 3an, 81 urte.
Maria Isabel Iparrea Irigoien, Arizkungoa, urtarrilaren 19an, 80 urte.



Terexa LOPERENA URTXIPIA

2007ko otsailaren 1ean hil zen Zubietan, 77 urte zituela.

Gogorra da onartzea gehiago ez zaitugula ikusiko baina bizi garen artean ez zaitugu ahaztuko.

ZURE FAMILIA.

Egun gogor hauetan gure ondoan izan zareten eta



Mari Jose TELLETXEA MARIEZKURRENA (31 URTE)

Azkar joan da denbora zu hemen zinela, baina zure irrifarra eta alaitasuna ez ditugu inoiz ahaztuko. Gure etxeetako bizigarri zinen, eta orain zure hutsunea nola bete pentsatzen ari gara, nahiz eta jakin ezin izango dugula inoiz bete. Beti gurekin, gero arte gure Mari Joxe!



Martin NOBLE ZABALETA

Ezkurran, 2005eko otsailaren 8an II. URTEURRENA

Nahiz eta urrun joan mundu honetatik, ez duzu alde egin gure bihotzetik.

ETXEKOAK.

DATUAK...

- Iker Tainta Noble aurrelari lesakarrak otsailaren 10ean debuta egin du profesioaletan, Garfe enpresaren eskutik.
- 20 urte bete zituen azaroaren 12an. Jose Luis aita urtetan pilotari izan zen afizionatu mailan eta Benito aitatxia pilota irakasle izan zen Lesakan. «Irakasle gogorrenak beraiek izan dira» dio Tainta gazteak.
- Pilota munduan ez ezik, edertasun lehiaketetan ezagun egin zen joan den urte akabailan. Mister Lur izan zen Elizondon eta Nafarroako lehiaketan Mister Simpatia.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Iker TAINTA *Lesakako pilotari profesional berria*

«Zakur zahar aunitz baditugu enpresan eta seguru pilotan ikasiko dudala»

Aitor AROTZENA

Profesioaletan debutatzeak ez du ezustean harrapatu Iker Tainta. «Hasieran ez nuen hain abudo izatea espero, baina joan den udan zerbait aipatu zidan Garfeko arduradun batek eta neguan debutatuko nuela konfirmatu zidan. Hagitz kontent nago eta ikusiko dugu maila hobetzen dugun poliki-poliki».

Iker Tainta aurrelari garaia da (1,84 m) eta bere burua errematatzailatzat jotzen du. «Oraindik kostatzen zait pilota gibelerara bota eta tantua lantzea, sobera abudo saiatzen naiz sartu eta tantua akautzen. Nere fuertea bolea dela uste dut». Ezker peto-petoa izanik, zer hobetu behar duen ere garbi badaki, «eskuina».

Afizionatuetako azken urteak Doneztebeko Erreka elkartearen eman ditu. Orain arteko palmaresa begirata, Logroñon lau terdiko El Cortijo txapelketa irabazi zuela gogoratzen du Taintak. «Lehenengo urtean ongi ibili nintzen binakako txapelketetan ere,

«Mister lehiaketetan aurkeztea esperientzia berria izan zen neretzat. Ez da inoiz nere ametsa izan, baina ongi pasatzeagatik egin nuen»

finalerdi aunitzetan izan nintzen, baina finalerako pausu hori falta zitzaidan. Pena da, baina halere, nere jokuan aitzinera egin nuela somatu nuen».

«URTE HONETAN INDARRA HARTU ETA JOKUAN HOBETU NAHI DUT»

Telebistan agertzen ez dena, ez omen da existitzen eta alde horretatik, Garfeko partidak ez dira Aspe, Asegarce edo Frontisekoak bezala, telebistan agertzen. Baina horrek ez du bereziki penatzen Iker: «Nik urtebeteko kontratua dut eta denboraldi hau ikasteko da. Nere asmoa indarra hartzea eta jokuz hobetzea da. Presarik ez dut, oraindik gaztea

naiz. Enpresa honetan, zakur zahar aunitz badaude eta seguru ikasiko dudala! Gainera, Garfek badu harreremana Asperekin eta ongi bazabiltza, beti baduzu aukera udan partiduren bat Aspekoekin aritzeko. Beti goiti aldera apuntatu behar da!».

Ikerren aita, Jose Luis, afizionatu mailako pilotari ona izan zen eta aitatxi, Benito, pilota irakaslea Lesakan. Nolabait, pilotarako grina odolean daramala erraten ahal da. «Biekin aunitz ikasi dut. Aita izan da nere irakaslerik gogorrena, bera pilotari izan zen eta beti gelditzen da txirrinta hori». Edertasun lehiaketaren batean irabazle suertatzeagatik ere famatu da eta etorkizunera begira, arlo hori ere ez du baztertzen Ikerrek: «Esperientzia berria izan zen neretzat. Ez da inoiz nere ametsa izan, baina ongi pasatzeagatik egin nuen». Bere partidetan ikusle aunitz izatea gustatzen zaio lesakarrari, baina «pilotan ongi aritzeagatik, ez guapoagoa edo itxusiagoa izateagatik».

PILOTA

Paxaka txapelketaren finalerdiak otsailaren 24ean jokatuko dira

Zortzigarren edizioa azken txanpan sartuko da Iruritako Aranabian

A.A.

Laxoa elkarrekin zortzigarren urtez antolatutako paxaka txapelketaren finalerdiak otsailaren 24ean jokatuko dira Iruritako Aranabia pilotalekuan. Aurtengo txapelketa, normalean baino beranduago hasi zen, baina azkarrago erabakiko da. Izan ere, zortzi hirukote ari dira, bi multzotan banatuak. Hasierako ligaxkan hirukote bakoitzak hiru partida bakarrik jokatu ditu (otsailaren 10ean jokatu zen azken jardunaldia) eta multzo bakoitzeko lehenbiziko eta bigarren sailkatuek jokatu dituzte finalerdiak hilaren 24ean: 17:00etan A multzoko lehena B multzoko bigarrenaren kontra eta ondotik, A multzoko bigarrena, B multzoko lehenaren kontra. Finala eta hirugarren posturako partida, berriz, mart-



ARGAZKIA: ONDIKOL

Zortzi hirukoteetatik bortz Iruritakoak dira paxaka txapelketan.

xoaren 3an jokatuiko dira Iruritako Aranabian. 17:00etatik aitzinera hirugarren postua erabakiko da eta ondotik, aurtengo txapeldunak eta txapeldunordeak zein diren jakinen da.

A multzoan Oitz (Iker Bereau, Ugutz Zelaieta eta Jose Agustin Minde-

gia); Irurita E (Cesar Iñarra, Jesus Etxenike eta Guillermo Etxenike); Irurita A (Joseba Urtasun, Mixel Etxenike eta Mikel Ballarena) eta Irurita B (Oscar Urrutia, Igor Urrutia eta Andres Elizaintzin) ari dira.

B multzoan, berriz, Lapurdiko Ipar Izar (Cris-

tian Mendiburu, Hari Idoate eta Iñaki Mendiola); Doneztebe (Jesus M^a Mitxelorena, Josu Juarena eta Eduardo Oiarzabal); Irurita D (Cesar Sarratea, Iñaki Zabaleta eta Xabier Ripa) eta Irurita C (Iñaki Etxandi, Miguel Bidegain eta Martin Alfaro) ari dira.

Malerrekako binakako txapelketako lehen finalistak erabaki dira

Erreka elkarrekin bosgarren urtez antolatutako pilota txapelketaren finalistak erabakitzin hasiak dira. Kategoriaz guzietako finalak martxoaren 10ean jokatuko dira Donezteben eta batzuk lortua dute egun horretarako txartela. Senior kategorietako finalerdiak ez zen kolorekin izan. Elite mailan, Elurbe eta Garmendiak 22 eta 13 irabazi zieten Iraola eta Urzainkiri eta Renobales eta Elizalde 22 eta 9 Ongai eta Landirbarri. Finalean, beraz, Elurbe eta Garmendia, eta Renobales eta Elizalde arituko dira lehian.

Bigarren mailan, Garcia eta Girones, alde batetik eta Txorraud eta Iratzeburu izanen dira finalistak.

FUTBOLA

Bortzirietako derbia Beran otsailaren 24an

Gure Txokoa jautsiera postuan da

A.A.

Otsailaren 24an, larunbat arratsaldean jokatuko da Berako Matxada zelaian Gure Txokoa eta Beti Gazteko talde nagusien arteko futbol partida. Bortzirietako

derbiak beti interesgarriak izaten badira ere, aurtengoan puntuak ere garrantzi handia izanen dute. Izan ere, Berako taldea jautsiera postuan murgildua dago eta hiru puntuak behar beha-



ARGAZKIA: J.J. GUERRERO

Bi taldeek puntuak beharra dute, beraien helburuak betetzeko.

rezkoak ditu maila mantentzeko borrokan. Lesakako taldea, berriz,

bigarren postuan dago eta Preferentera bueltatzeko aukerak ditu.

Lehen itzulian, 4-1 irabazi zion Beti Gazteko Gure Txokoari Lesakan.

AGENDA

egunez
egun

INAUTERIAK

ARIZKUN

Otsailaren 20an.

BERA

Otsailaren 17tik 19ra.
Xehetasunak erdiko
gehigarrian.

DONEZTEBE

Otsailaren 16an eta 17an.
Xehetasunak erdiko
gehigarrian.

ELIZONDO

Otsailaren 19an eta 20an.
Xehetasunak erdiko
gehigarrian.

ERRATZU

Otsailaren 20an.

ETXALAR

Otsailaren 19an eta 20an.
Xehetasunak 11. orrian.

GOIZUETA

Otsailaren 17tik eta 20ra.
Xehetasunak 20. orrian.

LESAKA

Otsailaren 17tik 20ra.
Xehetasunak erdiko
gehigarrian.

NARBARTE

Otsailaren 15etik eta 18ra.
Xehetasunak erdiko
gehigarrian.

SARA

Otsailaren 17an eta 18an.

ZINEMA

LEITZA

Otsailaren 23an eta 25an,
«Un franco, 14 pesetas»
filma ikusgai zinemari.
Ostiralean 22:30ean eta
igandean 19:30ean.

TAILERRAK

BERA

Otsailean Marrazki artistiko
tailerra emanen du Matilde
Brugierek, Gure Txokoa
elkartek antolatua. Izen
emateko 620 719400
telefonora deitu.

TELEBISTAKO TXOKOA



INAUTERIETAN MURGILDUAK

Ortzegun Gizenerakin hasiko dira inauteri ofizialak

Aitzineko aldian eskualdeko bertze herrietako inauterietaz ari baginen, oraingoan inauteri ofizialez arituko gara. Ailegatu da Ortzegun Gizenetik Hausterre Eguneraren bitarteko besta. Ortzegun Gizeneko eskeekin hasiko dira inauteri ofizialak, eta «araultze arraultze, zingar arraultze, bat ez bada bertze» oihukatuz ibiliko dira neska-mutikoak eskualdeko herri aunitzetan. Asteburuan, berriz, herriko pertsonaia ezagunak aterako dira kalera: Lesakan zaku-zaharrak; inude eta artzaiak Beran. Ttipi-Ttapa Telebista eurekin ibiliko da han eta hemen. Eta urteroko hitzorduari hutsik egin gabe,

hainbat karroza ere ikusi ahal izanen ditugu eskualdean, Beran, Donezteben, Etxalarren edo Lesakan, adibidez.

INAUTERIETAKO DVD ETA BIDEOAK SALGAI

Aipatzekoa da, aitzineko urteetan egin bezala, dagoeneko pasatu diren inauterien DVD eta bideoak salgai daudela: Sunbilla, Ituren, Aurtitz eta Zubieta, Arantza, Igantzi... Behin ospatu eta gero, Beran, Lesakan, Etxalarren edo Donezteben hartutako irudiak ere DVD eta bideoak salduko dira. Interesatuak 948 635458ra deitu behar dute.

DISKAK



1997-2002

SKALARIARI

GOR, 2006

Hamar urteko ibilbide oparoaren ostean, Skalarariak taldeak Europan eta herrialde latinoetan ospe handia lortu du. Arrakasta ziurtatua dute toki aunitzetan, hala Txilen nola Grezian, eta Alemanian, Suitzan, Italian edota Austrian barrena maiz egin dituzte birak. Gordiskoetxeak, taldearekin elkarlanean, Skalarariaren kanturik esan-guratsuenak bildu ditu CD honetan, euren lehenengo hiru diskoetan aurki daitezkeenak. Gainera, hainbat bitxikeria gehitu ditu, «Solo vivir» eta «S.R.K.» abestiak frantsesez eta italiarrez hurrenez hurren. Taldeak ekoiztutako «Street's ska» DVDa ere gehitu diote lan bilduma berri honi, 1997 eta 2002 artean taldeak bizitako unerik onenak islatuz. Skalarariak eszenatoki ezberdinetan ageri da. Elkarrizketak, erreportajeak eta zuzeneko emanaldiak biltzen ditu.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(Urtarrilaren 26tik otsailaren 2ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA



Zerrikumea
(19 kilo): 37,00 € (+2,00)
Zerri gizena
0,952 € kilo. (+0,025)
Zerramak:
0,425 € Kg/bizirik. +0,020

BEHIKIA



Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 3,98 (=)
1.koa 3,73 (=)
2.koa 3,53 (=)
Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,10 (=)
1.koa 3,85 (=)
2.koa 3,62 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):
Aretze mestizoak:
urruxak 210,00 (=)
idixkoak 288,00 (+12,00)

Aretze nabarrak:
urruxak 170,00 (=)
idixkoak 195,00 (=)
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,94/3,05
Zaldi-behorrak: 1,70/1,90
Bildotsak: €/k
6-8 kiloak: 5,10/5,80
8-10 kiloak: 3,90 /4,60

AGENDA
egunez
egun

JAKIN BEHARREKOAK

Bizkarreko mina buruko kontua ere izan daiteke

Bizkarreko oinazea saihesteko ariketa fisikoa egitea komeni da

Bizkarreko mina agertzea, minak irautea, bere intentsitatea eta haitematea, ez da soilik desordena fisiologikoen arabera. Estresak, bururen jarrerak eta mina duenaren uste okerrak ere badute eragina. Estresak bizkarreko mina eragin dezake mekanismo biokoitzaengatik: litekeena da, oinazea handitzea, eta gainera, nerbio-tentsioak muskuluen tonua ere handiagotu dezake, kontrakturak eraginez. Hartara, garrantzitsua da gaixoak mina dela-eta duen jarrera: batzuk beldurtu egiten dira mina somatzen duten bakoitzean lesioak okerrera egin duela pentsatuz. Aitzitik, lesiora jarri daitezkeela uste dutenek ahal duten bezain bizirik arruntena egiten dute, gogotsu jarraitzen dute, lanera joanez,



Bizkarreko mina ez da desordena fisiologikoa araberakoa bakarrik, estresak ere badu eragina.

eta minak galarazten dion hura bakarrik ez eginez. Lanarekin kontent ez egote horrek ere bizkarreko mina sortzeko arriskua areagotu eta ezintasuna luzatzen du. Estresa eragiten duten mekanismoengatik eta atsekabearen somatizazio inkontzientea bizkarreko min bilakatzen delako gertatzen da hori.

Mina gainditzeko baikorra izatea komeni da, oinazeekin

itsutu gabe; prebenitzeko antsietate saihestu behar da, emozio-gainkarga eragiteaz gain bizkarrezurrarentzako kaltegarria delako.

Sarritan minaren irtenbidea, arazoa haitemateko moduan dago: ezintasuna handiagoa da oinazeak saihesteko ariketa fisikorik egin behar ez dela pentsatzen dutenen artean, edo lesioa atzeraezina dela uste denean.

AHOLKUAK

• Orokorrean bizkarreko mina, ariketa fisikoa erregulariki eginez saihesten da, hau da, egunero 30 minutuz ariketa eginez, baldintza aerobikoetan eta beharrezkoak diren luzamenduak eginez. Halaber, aholkatzen da ordu bat baino gehiago ez egotea eserita (denbora hori pasatuta hiru minutu hartu luzamenduak egin eta oinez ibiltzeko).

• Pisu egokia mantentzea ezinbertzekoa da, posturak zaindu eta oinazeak somatutakoan medikurajon.

• Bizkarreko mina kronikoa denean, aditu talde batek tratatzea gomendatzen da, beti ere, pertsonaren hezkuntza kognitiboa eta jokabidea aintzat hartuz.

Rakel AMIGO

MENDI ATERALDIAK

SUNBILLA

Otsailaren 18an Peña Albara ateraldia antolatu du Ulibeltzak mendi taldeak.
Otsailaren 24an Zumaia-Debara ateraldia antolatu du Ulibeltzak mendi taldeak.

BAZTAN

Otsailaren 18an Anbotora ateraldia antolatu dute Baztango Mendigoizaleek.
Otsailaren 25an Alkotzera ateraldia antolatu dute Baztango Mendigoizaleek.

KONTZERTUAK

ELIZONDO

Otsailaren 17an, Mestizo Ska Jaia Lur diskotekan, 01:00ean. Sarrera: 8 euro.
Otsailaren 24ean, Hamlet taldearen kontzertua Lur diskotekan 0:30ean. Sarrera: 12 euro aurretik, 15 euro takillan.

LESAKA

Otsailaren 18an Gaubela taldearekin dantzaldia Plaza Zaharrean, 19:00etan.
Otsailaren 19an Gaubela taldearekin dantzaldia Plaza Zaharrean, 19:00etan.

BIDEO EMANALDIAK

LESAKA

Otsailaren 24an helduentzako bideo emanaldia Atxaspi ostatuan, 19:00etan. Sarrera doan.
Otsailaren 25an haurrentzako bideo emanaldia, Beti Gazte egoitzan, 17:00etan. Sarrera doan.

IPIIN KONTALARIAK

BERA

Otsailaren 23an Beldurrezko istorioak kontatuko ditu Miren Camisonen 6 urtetik goitiko haurrentzat, Berako Kultur Batzordeak eta liburutegiak antolatuta, liburutegian, 19:00etan.

LIBURUAK



Ihes betea

Anjel LERTXUNDI

ALBERDANIA, 2006

Warner Lindemann 17 urteko gazte hitlerzale bat da gerra aurreko Alemania nazian. Bere kide hitlerzaleekin era guzietako indarkeriazko ekintzak burutuko ditu. Baina, sekretu handi bat gordetzen dute bere familian: judua da. Sekretu hori ageriko egiten denean, ihes egitera behartuta egongo da Warner European barrena: Triestera aurrena, Frantziara gero. Lertxundik hausnarketa eta ekintza, suspentsea eta jakin-mina elkar txan-

dakatzuz darama irakurlea oztopoz oztopo azken liluragarriaino. Eleberri honek ez du inor hotz utziko. Gogoan iltzatuta geratzekoak dira gertatzen diren gauzak, erraten diren hitzak, isiltzen direnak, eta, batez ere, bere orrialdeetan aurkezten zaizkigun pertsonaia gogoangarriak eta haien historia hunkigarriak. Idazlearen hitzetan, «gure bizikizunekin eta egunkarietan agertzen diren bizikizunekin paralelismoak daude».

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 8 € ordaindu behar da. Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin).

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ADOS

- **ELIZONDO.**
 - Apartamentu eta pisuak salgai.
 - VPO pisuak salgai.
 - Terreno urbanoak salgai.
- **ARANTZA.**
 - Borda eta etxeak salgai.
- **ARRAIOZ.**
 - Pisu eder bat salgai.
- **BERA.**
 - 2 pisu salgai.
- **LESAKA.**
 - Pisuak eta terrenoak salgai.
- **DONEZTEBE.**
 - Eraikuntza berriko pisuak salgai.
 - 10 minutura: baserria, borda eta lurrekin salgai.
 - Etxeak eta bordak salgai.
- **LEITZA.**
 - Pisuak salgai. Aukera ona!!
- **BAZTAN.**
 - Bordak, baserriak, etxeak, pisuak, apartamentuak eta terrenoak salgai.

- **PROMOZIO BERRIAK:**
 - **IGANTZI.** AZKEN pisua trasteroarekin eta aparkalekuarekin salgai.
 - **ELIZONDO.** VPOko pisuak trastero eta aparkalekuarekin salgai.

INFORMA ZAITEZ!
948 541 841 / 948580705
www.ados-inmobiliaria.com

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

IGANTZI. Pisua salgai, berri-ritua eta bizitzen jartzeko moduan. % 677 425873 (Jaione).

ELIZONDO. Saskaitz Plazan pisua salgai. 90 m², 3 logela, sukaldea, komuna, 2 egongela, sukaldea eta balkoi itxia. % 610 516110-678 902026

BERA. Pisua salgai Eztegarra pasealekuan. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. 90 m². % 629 612614.

ETXEBIZITZAK

105 Etxe konpartituak

IRUÑA. Pisua konpartitzeko lagun bat behar da Alde Zaharrean. Pisu handia, eguzkitsua, berogailua, igo-

BULDAIN INMOBILIARIA

LEITZA: Patxi Arrazola katean 3 logelako pisua salgai, trastelekuarekin. 141.238 €.

gailua. % 637 555357- 658 284857.

GARAJEAK/LOKALAK 109 Errentan eman

BERA. Garajea errentan emateko, Correos ondoan. Aproposa motoak eta bizikletak uzteko. % 948 630881.

ELIZONDO. 45 m²ko lokala errentan emateko. Denda eta bertze negozioa jartzeko modua. % 626 021643.

ZERBITZUAK


205 Zurginak



ARANTZA
Zurgindegia.....
- Klase guzietako zurgin lanak
- Eskatu aurrekontuak konpromisurik gabe
Jose Miguel Errozkabe
Tel: 948 634 948 - 647 810 144
Gertubieta - ARANTZA

ZERBITZUAK

208 Bertzelakoak



BORDA
PLADUR LANAK
ISOLAMENDUAK
DEKORAZIOA
ERABERRITZEAK
SABAI MODULARRA
Albora 57-B (LESAKA)
londaldu@telefonos.net
Tlf: 948 637 546
Mg: 609 477 277

LANA 301 Eskariak

Sukaldean aritzeko emakume bat eskaintzen da. Ahal



SALMENTA:
BERA: 3 etxebizitza berri herrigunean. Igoailua.
BERA: 84 m²ko pisua erdian, 2 logela, bainugela, egongela eta sukaldea. Garajea. Sartzeko moduan.
BERA: Bi familiako etxebizitzan pisua, 3 logela, 2 bainugela, sukaldea eta egongela handia tximiniarekin. Garajea.
BERA: 95, 70 eta 40 m²ko lokalak karrikan bertan.
ARANTZA: 76 m²ko pisua, 3 logela, egongela, sukaldea, bainua. Trastelekuak etxe gainean. Baratzeta. Bista onak.
DONEZTEBE: Erdigunean: bi familiako etxebizitzan, 72 m²ko pisua eta 72 m²ko bajera.
ELIZONDO: Solairuko 136 m² dituen baserria eta 27.000 m²ko lur eremua.
LUR EREMUAK:
BERA: 2.155 m²ko lur erakigarria.
BERA: 3.188 m²ko lurra famili bakarreko etxearentzat.
LESAKA: Famili bakarreko etxe 1-2 egiteko lurra, argia eta ura.
SUNBILLA: Famili bakarreko etxea egiteko lur eremua.
ERRATZU: Famili bakarreko etxea egiteko 2.724 m²ko eremua.
ALOKATRUAK:
BERA: Lokal ezberdinak, karrikan bertan.
ESKARI HANDIA IZATEAGATIK, ETXEA, PISUAK, BASERRIAK, BORDAK ETA LUR EREMUAK BEHAR DITUGU
Kallonberri karrika, 4
31780 Bera. Navarra
Tel/Fax: 948 630552
info@baztango.com
www.baztango.com

bada Bortzirietan. Badu esperientzia. % 948 637450.

BERA. Emakume bat eskaintzen da edozein lanetan aritzeko (etxeko lanak, haurrak edo adinekoak zaintzeko...)% 610 051320.

Komertzial bezala Bortzirietan lan egiteko pertsona bat eskaintzen da. % 618 188300.

Ingeniari teknikoak topografo lanak egiten ditu, lur neurketak eta abar. % 628 123026.

Emakume euskalduna eskaintzen da Baztan inguruan etxeko lanak orduka egiteko. % 616 164857.

Emakume batek Bera inguruan lan eginen luke (sukaldean, fregatzen...) % 628 128189.

Administratibo euskaldunak, 10 urteko esperientziarekin, lan eginen luke Baztan, Malerreka edo Bortzirietan. % 696 361280.

LANA 302 Eskaintzak

Arkitekto teknikoa behar da obra batean lan egiteko. Urte baterako kontratua. % 948 450188.

LESAKA. Atxaspi ostatuan bi zerbitzari behar ditugu as-teburuetan lanean aritzeko. % 948 637536.

BERA. Frantsesa pixka bat dakiten neska eta mutil bat behar dira Larungo bentabatean, 6 hilabetez lan egiteko. % 948 631100-948 630794 (gaeuz).

IRUN. Langileak behar dira jatetxe batean lan egiteko. Kotxea edo motorra izatea beharrezkoa da. % 675 711731.

OITZ. Oizko ostatuan fregaderan igande eta jai egunetan lan egiteko pertsona bahar da. % 948 451951.

BARAÑAIN. Ileapaintzailea behar da. Esperientziarekin, euskalduna eta langilea. Martxotik aurrera lanean has-teko. % 948 185889

MOTORRA**501 Salerosketak**

Renault Twingo autoa salgai, 1996.urtekoa. ITVa azaroan pasatua. % 661 140 479.

Opel Vectra DTI autoa salgai, 122.000 kilometroekin. Aluminiozko llantak. Prezioa adosteko. % 609 912213.

Honda HR-V 1.6cv 4x4 autoa salgai, 4 urtekoa. Eki-mendu osoa, oso egoera onean. Mantenimendu liburuarekin. % 639 448981.

Volkswagen Passat High-line autoa salgai. 2002.urtekoa, egoera onean. % 607 7853208.

Opel Astra beltza autoa salgai, 2000 DTI, 100 zaldikoa. % 649 919557.

MOTORRA**MENDAUR MOTOR**

& 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

Mitsubishi DID 3 ate automatikoa eta manuala, Vitara 3-5 ate TD, Opel Astra, Grand Vitara 3-5 ate, Opel Zafira, Volkswagen Polo, Terrano II, Opel Frontera 3-5 ate, Galloper 3-5 atekoa eta Land Rover. SUZUKIAK ETA VITARAUK AUKERAN

TALLERES SANTESTEBAN

& 948 450282 • DONEZTEBE

KOTXE IA BERRIEN ESKAINTZA ZABALA (6-12 HILABETEKOAK)

CLIO, MODUS, KANGOO, MEGANE, MEGANE GRAND TOUR, SCENIC, LAGUNA, LAGUNA GRAND TOUR, ESPACE.

BIGARREN ESKUKO KOTXEAK

OPEL ASTRA 2.0, SUZUKI VITARA 1.6., CITROEN XSARA 2.0 D, LAGUNA GRAND TOUR 2.2 DCI 2002 urtekoa.

502 Tailerrak**ANIMALIAK****602 Salerosketak**

Zerri gizena salgai, Igantzin. % 948 637078 (Juan).

12 urteko behorra salgai. Gaietan ibiltzeko eta ibilal-

diak egiteko aproposa. % 670 251632.

Mutur gorriko bi ahari salgai, bat adarrekin eta bertzea adarrak gabekoa. % 948 451696 (20:00etatik aitzine-
ra)

Euskal artzain txakurrak salgai (Gorbeikiak). % 610 889670.

Zakur azkarra saltzen dut. % 948 450375.

DENETARIK 701 Galdu-aurkituak

Giltza batzuk aurkitu dira Be-

rako Itzea auzoan (Iparralde-
dea karrikan). % 948 631 168.

3 metroko eskailera bat galdu da Lizuniaga eta Kauleko bidean. % 948 625248.

DENETARIK 702 Salerosketak

Belar idorra eta ahotza pakete ttikiak eta handiak salgai, kalitate onekoa. Etxera igortzen da. % 943 366040-607 457004 (Dani).

Estrenatu gabeko ekonomika berria salgai. Merke saltzen da. % 666 818692.

Logela salgai, 1,05 cm-ko ohe bat, koltxoia eta somierarekin, gau-mahaia eta idaz-mahaia bere apalarekin, gaztainarekin egina. % 948 450950.

17 erle salgai, beren altza eta guzti. % 948 610661.

Bigarren eskuko trikitixa erosiko nuke, prezio onean. % 616 382849.



Grupo Tanatorio Taldea

Irache

Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

24 orduko zerbitzua
beilatokian eta etxean

trasladoak iruñea, donostia eta
irungo ospitaletatik edozein herrietara

loreak, hilarriak, eskelak,
errausketak eta zerbitzu osagarriak

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

Argazki soila: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,30€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratuzko, bidali kartazala zure helbidearekin.

www.ttipi.net



MARIAN LEIZA le-sakarrak otsailaren 25ean berrogeita... urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik, bereziki lone, Leire, Irene, Andrea eta Rakelen partetik.



Doneztebeko PILOTO JUNIOR hoberenak 20 urte bete ditu otsailaren 1ean. Zorionak arreba Ainhoa, ama eta neska Ainararen partetik. Muxu aunitz kanpeon!



KATTALIN BERA-SAINEK 5 urte bete ditu otsailaren 6an. Zorionak Ane, Amaia, amaxi, amonia eta familia guztiaren partetik.



Etxalarko UXUE ITURRRIA RAZKINEN 5 urte bete ditu otsailaren 9an. Zorionak eta muxu handi bat Oier, Markel, amaxi, ama eta aitaren partetik.



JULIA PAJARES beratarrak urteak bete ditu otsailaren 5ean. Zorionak familiaren partetik eta bereziki bere pottokoren partetik.



Mª SOL eta OIHAN sunbildarrek 31 eta urtea beteko dituzte otsailaren 17an eta 5ean. Zorionak eta aunitz urtez familia guztiaren partetik.



Sunbillako OIHAN LUJANBIO SANCHEZEK urtea bete du otsailaren 5ean. Zorionak familia guztiaren partetik. Eskerrik asko jaiotzeagatik.



Berako MAREN GARRO gure «super-sobri» kañeraren urtebetetze eguna da otsailaren... Urte bat! Ai ama! Mila muxu maizia!



OIHANA LAKOSTA AYUSOK urtea beteko du otsailaren 15ean. Zorionak gurasoen, Raul, Andrea eta Lasiren partetik.



Aupa ENEITZ, Ekaitz naiz, zure anaia! Zorionak pila, patata tortila! Otsailaren 10ean bi urte bete dituzulako zoriondu nahi zaitugu Arantzatik eta Sunbillatik. Muxuk txikito!



MAITE eta BEATRIZ bi neska polit hauek urteak bete dituzte otsailaren 5ean eta 11n. Aunitz urtez familiaren partetik.



ANE TELLETXEA IGOA lesakarrak 6 urte beteko ditu otsailaren 19an. Aunitz urtez Pello anaiaren eta Harizpeko familiaren partetik, bereziki Lexuri zure lagun tikiaren partetik. Muxu handi bat.



Lesakako IKER IRIARTEK 7 urte beteko ditu otsailaren 15ean. Aunitz urtez Irati, atta eta amaren partetik.



MAIDER MINDEGIA ELETAK 19 urte bete ditu otsailaren 5ean. Zorionak eta muxu handi bat aita, ama, Nerea eta Goioren partetik.



NAIA BERRUET BALLESTERREK urtea bete du otsailaren 11n. Zorionak Lesakako eta Behobiako familiaren partetik.



NAIA BERRUET BALLESTER eta bere amaxi **LURDESEK** otsailaren 11n urteak bete dituzte. Zorionak familiaren partetik.



Iruritako NAROA ELIZAINTZIN ALTZUARTEK 3 urte beteko ditu otsailaren 24an. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik.



IZARO ETXEPARE ELRIO beratarrak otsailaren 21ean 3 urte beteko ditu. Zorionak Olatz, Jone eta familiaren partetik. Muxu bat printzesa!



HAIZEA ETXEBERRIAK 9 urte beteko ditu otsailaren 24an. Nola haunditu zaren mattia! Zorionak attatto, amaxo, Ainara eta Koxkaren partetik.




Lesakako PAKI eta FELIXEK otsailaren 3an eta 20an urteak betetzen dituzte. Zorionak muxu pottolo bat Imanolen partetik.



NEREA SANTETEBAN MUTUBERRIA tolosarrak otsailaren 18an 5 urte beteko ditu. Zorionak Errenderiko bere familiaren partetik, bereziki Irati.



Erratzuko XUBAN BENGUETXEA BIDEGAINEK otsailaren 24an urtea beteko du. Muxu bat Erratzuko familiaren partetik. Zorionak kuku-xo!



Erratzuko JOKIN, IDOIA eta XUBAN. Otsailaren 22-23-24an urteak beteko dituzte. Zorionak Erratzuko familiaren partetik. Merendatzera agertuko gara.

ttipi ttapa harnidetzak 07 harpidetzak 07 tarifa berriak

ESPAINIA	32 €
EUROPA	52 €
AMERIKA	110 €
Baztan, Bertizarana, Urdazubi, Malerreka, Leitza	26 €
Sara, Senpere, Azkain La Poste	52 €
Sara Edantegian eta okinekin	40 €
Bortzirriak, Areso, Goizueta eta Arano	DOAN

www.ttipi.net

Tfnoa: 948 635 458 • Faxa: 948 635 457
info@ttipi.net • publi@ttipi.net

Lasao

• egurrezko altzaria



100% gaztainondo trinkoa

www.lasao.com

Lasao Industrialdea
Tel. 943 151 182
AZPEITIA





otsailak 17

MESTIZO SKA JAIA

01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

otsailak 24

HAMLET

00:30 12€ aurretik 15€ takillan

martxoak 3

MAKALA

PRESENTS BOOM SHAKA LAKA

01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte



martxoak 10

LUR D JOTAK + KORRIKA BESTA

01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

ZOZKETA

"Ibiza" baten zozketa. Eskura itzazu zure boletoak 3:00ak baino lehen iristean. Astebururo zure sarrerakin batera.

